

# ...eta kitto!

759 zkia. 2011-IV-8

ASTEKARIA

# 17. korrika euskal klip

TOKIKOM

## apirilak 13 21h.07'


*maitatu*

*ikasi*



*ari*

*euskalakarri*



Clinica Oftalmologica  
**RECALDE**  
Oftalmologia Klinika

## FEMTOSEGUNDOKO LASERRA

Plaza Barria, 2 - 2. - Tfnoa.: 943 201 844  
[www.clinicarecalde.com](http://www.clinicarecalde.com)

# gte.

GESTIÓN TÉCNICA Y EJECUCIÓN DE OBRAS, S.A.



edificio **aldatze**<sup>2</sup>

**8** etxebizitza

**63** garaje

**17** trastero

**610 718 244 / 943 700 150**


Aukera ezinhobea:

Garajeak Eibar erdian



**5 eguneko Teorikako ikastaro trinkoak**

**ZEZEN  
BIDE**



**AUTO  
ESKOLA**


**AUTO  
ESCUELA**

**CURSOS INTENSIVOS**

**ORDUTEGIA:  
09.30-13.00  
15.30-20.30**

**GIDA-BAIMENAK**

San Andres, 1 ac  
Tel. 943 20 34 45  
**EIBAR**





**ARGITARATZAILEA:**

...eta kitto! Euskara Elkartea

**HELBIDEA:**

Urkizu, 11 - solairuartea  
20600 Eibar

**TELEFONOAK:**

943 20 67 76 / 943 20 09 18

**FAXA:**

943 20 28 72

**Astekariaren E-MAILak:**

erredakzioa@etakitto.com

komunikabideak@etakitto.com

publizitatea@etakitto.com

**Elkartearen E-MAILak:**

elkartea@etakitto.com

normalizazioa@etakitto.com

**ERREDAKZIO-KONTSEILUA:**

Itziar Albizu

Adrian Alvarez

Maider Aranberri

Jose Luis Gorostegi

Silbia Hernandez

Koldo Mitxelena

**ADMINISTRAZIOA:**

Marisol Uriarte

**KOORDINATZAILEA:**

Koldo Mitxelena

**ERREDAKZIO-BURUA:**

Silbia Hernandez

**DISEINUA ETA MAKETAZIOA:**

Jose Luis Gorostegi

**ARGAZKI ARLOA:**

Maialen Belaustegi

eta S. Hernandez

**HIZKUNTZA ARDURA:**

Juan Andres Argoitia

Maider Aranberri

**PUBLIZITATEA:**

Itziar Albizu

Belen Ulazia

Tfnoa: 943 20 67 76

**AZALA:**

J.L. Gorostegi

**BANAKETA-ARDURADUNA:**

Ainhoa Luz

**TIRADA:**

8.000 ale

**INPRIMATEGIA:**

GERTU koop. (Oñati)

**COPYRIGHTA:**

...eta kitto!

**LEGE-GORDAILUA:**

SS/430/92

ISSN: 1132 - 1679

("...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen  
aldizkarian adierazitako esanen  
eta iritzien erantzunkizunik)

## Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskeraz

**HARIAPEKO.-** Erreka urpean sortzen den ur-jarioa, agorra eragozten duena. "Agortzen ekinda laga egin bihar izan genduan, hariapeko haundixa agertu jakulako". Iruzur, amarru. Gaztelera **'trampa, engaño, tongo'**. "Bankuko oposiziñuan plazia zelan emon jensek horri eta ez gure anaixiari? Hemen hariapekua egon dok!".

**HARIAPEKO DIRU.-** Gaztelera **'dinero negro'**. "Oin danian dabil hariapeko dirua".

## ESKUTITZAK

### NOIZKO ZIBILIZATU GABEKO TXAKUR-JABEEN AURKAKO SAREKADA?

Neurriak edozein arlotan hartzen diren sasoiak, eta gero eta gogorrago gainera, arraroa egiten zait txakur-jabeen inpunitatearekin jarraitzea. Txakur-jabe guztiak nire aurka ipini aurretik, aitortu behar dut gehienak arduratzen direla gure kaleak garbi izaten eta txakurren-kakak jasotzen. Hala ere, badaude batzuk, denetariko adin eta estrato sozialekoak, guztiz paso egiten dutenak: Urkizuko dorreetan, rebistakok zuen bulegoak dituzuen solairuarde horiek dira horren lekuko, zuengana joan nintzenez konprobatu ahal izan nuen moduan. Kasu bat kontatuko dizuet, Orbea kiroldegira zihoan ume bati gertatutakoa: ikusi nuen bidean txakur-kaka bat zapaldu zuela eta ez zekiela zer egin, baina ahal zuen neurrian bistakoa

kendu eta kiroldegira sartu zen. Nire buruari esaten nion: barruan zer egingo du gizajoak? Ez zaio okurriduko oinetakoak takilan sartzea, ezta? Dena zikin-tzeaz gain, zelako kiratsa aldalekuetan... Ez da askoz errazagoa bakoitzak bere animaliak sortzen dituenak jasotzea? Inon erre ezin den sasoi honetan, gauza errazagoei ez diegu helduko? Zergatik? Ez dago larregizko permisibidadea? Neurriak hartzea ez da komeni, zibilizatean ez garen bitartean behintzat? Txakurren-kakak ADN-a aztertzen hasi behar gara, zigorrak ezartzeko? Zergatik ez zigor ereduari jabe ezjabe diren horientzat? Eta, zure aurrean jasotzen ez badute, aurpegiatu mesedez!

N.A.N. 15.364.352-M

## asteka HEMEROTEKA esaldiak

"Hildako bakar batek odolez zipristintzen ditu egunkariak eta pantailak; banaka hildakoak albiste berok dira, ezin aproposagoak gure sentimenduk manipulatzeko. Potroiloan hildakoak estatistikaren dorrean kokatzen dira, anonimo, zertzeladarik gabe. Stalinek zioen moduan, 'hildako bat tragedia bat da; milioi bat hildako estatistika soila'. Multzoa da biolentzia ikusezin bihurtzeko lehen baldintza"

(Pako Aristi, idazlea)

"Irakeko Kurdistanera egindako bidaietan harritu egiten ninduen etorkinak topatzea: mafia batek Bangladesh-ek ekarritako langileak ziren. Langileok 3-4 mila dolar ordaindu zuten Dubaira joateko hiru urtez. Aireportuan esan zieten Dubain lanik ez zegoela eta Irakera zihoazela. Pasaporteak kendu, kanpaleku batera eraman eta kaleak garbitzen pasatuko dituzte hurrengo urteak, esklabo. Nazioartekoari? Bost axola"

(Karlos Zurutuza, dokumentagilea)



EIBARKO UDALA



GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA (HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzako Kultur Sailak eta Kutxak diruz lagundutako aldizkaria

## a u t u a n

**AUTODEFENSIA IKASTARUA**

Andrak euren burua babesten ikasteko doaneko ikastaro trinkua emongo dabe bixar Ifarkaleko tx4fitness gimnasian. Egunerokotasunian erasoren bateri aurre egin bihar izan ezkererreakziño egokixa eukitzeko klabiak emongo ditte ikastaruan Jose Manuel Alonso "krav maga" irakasliak. Interesa dakenak bertara juanda edo 649983340 telefono zenbakira deittuta emon leike izena.

**EIBAR-DEBA "EXPRESS"**

Asteburu eta jai egunetarako autobus zerbitzu "expressa" indarrian sartu zan apirillaren 2xan eta irailaren 25era arte eskinduko dabe EuskoTreneko autobusak Eibar eta Deba bittarteko ibilbidian. Eibartik (Untzagatik) Debarako autobusak 11.30, 12.40, 13.50, 16.30, 17.40 eta 18.50etan urtengo dira eta Debatik Eibarrerako autobusak, barriz, 12.00, 13.10, 17.00, 18.10 eta 19.20etan. Informaziño gehixagorako 902543210 telefonora deittu leike edo [www.euskotren.es](http://www.euskotren.es) webgunia konsultau.

**SENDIAN PROGRAMIA**

Famelixan ezinduren bat dakeneri zuzendutako ikastarua emongo dabe Portalean (ikastaro gelan) apirillaren 10ian eta 12xan, 15.00etatik 17.00etara, Sendian programaren barruan. Ikastaruan, bestiak beste, produktu lagungarriak ezagutzera emongo ditte, laguntza-produktuak eskuratzeko informaziño eta finantza-itturriak azaldu eta ezindutako personak lekuz aldatzeko teknikak esplikaiko ditte. Eskaeriak Pegoran egin bihar dira.

**GURASUENDAKO IKASTARUAK**

Lehen Hezkuntzan eta DBHko 1. zikluan diharduen seme-alabak dituen gurasuendako ikastarua emongo dabe maiatzan 2, 4, 9 eta 10ian, 18.00etatik 20.00etara Portalean. Eskaeria egitteko Pegorara jo leike, hillaren 15era arte.

**250 LANPOSTU ARRISKUAN JARTZIA LEPORATZEN DETSE OBRETAKO ARDURADUNERI****Ibur-Errekako enpresak, haserre bertako obrekin**

**OBRAK EDOZEIN MODUTAN EGITTIA, BATEZ BE EURAK KONTUAN IZAN BARIK, ETA URTEBETETIK GORA LUZATZEN DIRAN KALTIAK JASAN BIHAR IZATIA** leporatzen detse instituziñueri ("batez be, Eusko Jaurilaritari, eurak dira-eta lanen arduradunak") Ibur-Errekako poligono industrialeko enpresarixo eta propietarixuen asoziaziañuak. Astelehenian aurkeztu ziran eta euren hasarria kalerau, "iñor gitxi ez dalako" euren egoeriaz arduratzen. Zaldibarko terrenuetan daguan poligonora aspaldi jua ez badana be, berihala ezagutuko dau bertatik datorren automobil edo kamioia: lokatze eta hautsez betetako hura erraz izan leike Ibur-Errekara bisittia egindakua.

Lanok Ibur erreka bideratzeko hasi ziran egitten, "baiña guztion onerako izan zeikianak, oztopuak besterik ez dira izan guretako, askotan biharra be eten egin bihar izan dogulako eta gurekin lan egitten dabeneri barriro hara bueltatzeko ape-



Astelehenian prentsaurrekuu emon eban Ibur-Errekako asoziaziañoko batzuk. / FELIX MORQUECHO

nas gogorik geratzen jakuelako gauzen egoeria ikusitta", salatzen dabe asoziaziañotik. Bihargiñ gehixenak Eibarkuak dira, "250 bat inguru izango gara eta, 2009ko abenduan eskabadoria sartu zanetik, gure lanpostua arriskuan jarri besterik ez dabe egiñ: arriskuan edozein istripu gerta leikielako eta baitta holan ezin dogulako bihar dan moduan lanian jarraitu be". Halako arazuari aurre egin biharrak erraztu detse "guztioak batu eta alkartia sortzia. 38 enpresa gagoz bertan eta erdixak alkartian gagoz honezkero". Keja asko badake be egitteko, eskaeriak hiru puntu printzipaletara mugatzen dira: "Oiñ arteko zubixa luzatzia, beste txiki bat ipintzia eta

aparkalekuu egittia. Gaur egun pabilioietan ezin dogu normal funzionau, poligonuaren goiko aldera doian bihurguniaren arazua ez da konpondu eta aparkalekurik egingo deskuenik ez deskue garantizau".

**Zaldibarrek kasurik ez**

Bizkaiko herrixaren terrenuetan egonda be, eibartarrak diñue bertako udalak iñoiz be ez detsela lagundu, "herriko gunetik kanpo gagozelako akaso". Obraren epe legalak pasauta dagoz eta, neurri askorik ezin badabe hartu be, "biharrak zaintzeko" asmua dake, derri-gortuta. "Bestela, batek daki zelan lagatzeko gai diran: autuen kaltiak dirala-eta, hamabi salaketa dagoz ipiñitta; bihargiñen billa be bajau izan bihar gara behin baiño gehixagotan".

**Parte-hartzerako konpromisuarekin ados**

**MAIXA EIBARKO HERRITARRREN PARTE-HARTZE MAHAIK OIÑ HURRENGO ALDERDI POLITIKO GUZTIERI HELARAZITTAKO "PARTE-HARTZEKO KONPROMISUA"** partido guztietako ordezkariak siñatu dabela emon dabe aditzera aste honetan bertan. Martxuaren 23an politikueri entregau eta bixamonian prentsaurrekuu ezagutzera emon eben idatzixak jasotako puntuetan herritarrak politikan parte-har-



Felix Errasti, Maixako aurpegi ezagunena.

tzeko aukera eta baliabide errealak bermatzeko hainbat aldaketa eta konpromiso agertzen dira.

Maixa-ko ordezkariak pozik dagoz idatzixaren inguruan jasoz daben erantzunarekin: Alternatiba, Aralar, Ezker Abertzalea, Ezker Batua, Eusko Alkartasuna, Hamaikabat, EAJ, PP eta PSE-EE alderdixeri helarazi jakuen dokumentua eta danadan bat egin dabe bertan idatzitta daguan eskaeria eta konpromisuarekin.



## Urteko milioi bat euro Teknikerrendako

**ASTE HONETAN MIGUEL BUEN TEKNIKERREN BISITTAN EGON DA ETA EKITALDIXAN BERTAN EGINDAKO ADIERAZPENERI JARRAITTUTA**, datozen hauteskundietan Gipuzkoako Ahaldun Nagusi izatera ailegau ezke-ro, legegintzaldixak irauten daben bittartian urtero milioi bat euroko inbersiñua egittekko jendaurrian hartutako konpro-

misua bete egingo dau, polo teknologiko barrixari bultzadia emoteko.

Miguel de los Toyos alkatiak, Eneko Andueza hirigintza zifiegotzixak eta Alex Bengoa Teknikerreko zuzendari nagusixak lagundutako bisittan, Buenek zentro teknologikuan gaur egunian lantzen diharduen proiektuen barri bertatik bertara jasozeko aukeria euki eban.




## “Menú Estress” reality barrixa

**MAIATZETIK AURRERA SUKALDARITZAREN INGURUKO REALITY BARRIXA GRABATZEKO PLATÓ BIHURTUKO DABE BIDEBARRIETA KALEKO BOMBA** elkarte gastronomikua. ETB-2xan emititzen hasiko diran programaren izena “Menú Estress” da eta Ibon Uzkudun eibartarrak presentauko dau. Ixa ordubeteko iraupena eukiko daben programia 15 astetan emoteko asmua

dake eta lehiaketa modura planteauta egongo da: lau sukaldari ezezagun lehiatuko dira bertan, 3.000 euroko sarixa eskuratzeko ahalegiñetan. Soziedade barruko irudixak ez eze, gure herriko kalietan hartutako beste batzuk be erakutsiko dittue progaman. Egunotan soziedadia grabaziñuekin hasi ahal izateko preparatzen dihardue, dekoraziñua eta bestelako kontu batzuk barriztauta.

## anzorik anzo



## Azittain-Txarakua inguruko biharrak hasi dira

**Electrociclos-eko etxe barrixen parian trenbidia bikoiztu ahal izateko biharrak hasi dittue, EuskoTrenek behelaldeko inguru horretarako dakan proiektuari jarraituta.** Herriko beste puntu batzuetan egindakuaren bidetik, Azittain-Txarakua inguruan be trenbidia bikoiztu egingo dabe, han hasi eta oin momentuan barrizatzen diharduen Estaziñua bittarteko tartian. Danera 775 metroko ibilbidian bikoiztuko dabe trenbidia. Horrekin batera Azittaiñen geltoki barrixa egingo dabe, gaur egunian Donostiarako norantzan dagan apeaderotik 230 bat metrotara. Datoren urtiaren erdialdera biharrak amaittuta egotia aurreikusida be eta proiektuak 3'5 milioi euroko presupuestua daka. Biharrak amaizian trenbide bixen bittartian 80 metro luze izango dittuan nasa sortuko dabe eta geltoki barriko eraikiña trenbidia eskumako aldian jasoko dabe, Lidl supermerkatuaren inguru horretan, eta sarrerria erreka gaiñetik doian pasabidetik eukiko dau.

## eibar kaleka

### Urkizu pasialekua

Hiri toponimiari begira ipiñitta, gitxienez XIX. mende hasieratik Urkuzu zeñ Urkizu, forma bixetan topau geinke izen bereko parkiaren albo bixak hartzen dittuan kaliaren izena.

**Pegora kopurua: 27**

**Erroldatutakoak: 1.153**



**asteko**  
**600**  
**datua**

lagun dira, batzaz beste, Portalea eraikiñak egunero hartzen dittuanak. laz ixa 200.000 lagun pasau ziran bertako instalaziñuetatik, horretatik gehixenak, 148.000 inguru, liburutegixa erabilli eben. Ikusgai egon ziran 17 erakusketak, barriz, 8.600 bisita jaso zittuen.

**MARTITZEN EGUARDIXAN MILLAKA LAGUN BATU ZIRAN ELA, CIG, LAB, STEEILAS, CSC, IC, EHNE ETA HIRU SINDIKATU ABERTZALIAK** egindako deixari erantzun eta Gobernuaren eta CCOO eta UGT sindikatuen artian egindako hitzarmen kolektibuaren eta erreforma ekonomikuaren kontra protesta egitteko, "Gure lan eta bizi baldintzak erabakitzeke eskubidearen alde. Pentsio erreformari eta hitzarmen kolektiboaren negoziazioari ez" leluari segidu zetsan manifestaziñuan parte hartuta. Eibartik goizian goiz urten ziran hainbat lagun, Ego Gaiñen autobusa hartu, Madrillen manifestaziñuarekin bat egiñ eta, amaitzian, etxerako bidia hartzeko. Manifestarixak Castellana Pasialekuan ibilli ziran eta Adolfo Muñoz 'Txiki' ELAko buruak, Ainhoa Etxaide LABeko idazkari nagusixak eta Suso

## Eibartik Madrilgo manifestaziñora



Millaka lagun batu zittuzen sindikatu abertzaliak Madrillen.

Xeixo CIG sindikatuko ordezarixak gogor salatu eben gehixengua daken CCOO eta UGT sindikatuen jokabidia, bestiak beste Gobernuarekin "bat egittia" egotzita. Horrez gaiñ, hitzarmen kolektibuaren inguruan egindako negoziaziñua errefusatu eben, euren berbetan "erreformak ez dabelako lanposturik sortuko eta, gaiñera,

*bihargiñen eskubidien murrizketia erraztuko dabelako".*

Bestalde, eta bidian egindako geldiuñetako bat aprobetxautu, kartzelan dagoen Aniaiz Ariznabarretari alkartasuna erakusteko pankartia zabaldu eta erretratua etara eben LAB sindikatukuak, egunotan presuen alde garatzen diharduen kanpaiñaren testuinguruan.

## Diru-laguntzen hitzarmenak siñatuta

**AURREKO ASTIAN SIÑATU ZITTUEN UDALETXEKO PLENO ARETUAN EIBARKO EUSKARA, KULTURA ETA JAI BATZORDIETAKO ORDEZKARIXAK** diru-laguntzen inguruko hitzarmenak Udalarekin. Udalak emondako diru-laguntza horrek alkartiak urtian zihar antolatzen dittuen jardue- ra eta proiektuak ordaintzen laguntzeko erabiltzen dira. Danera 244.991 euro banatu dittu Udalak, 27 alkarteren artian.

Hitzarmena siñatu ebenen artian euskalgintzan biharrian diharduten alkartietako bako- txak zenbat jaso daben jarraixan irakorri zeinkie: AEK-k 25.893 euro, Badihardugu Eus- kara Elkartek 1.386 euro, De- ba Beheko Bertso Eskolak 2.200 euro, ...eta kitto! asteka- rixak 38.934 euro, Txikitto! hi- llabetekarixak 12.000 euro eta ...eta kitto!-ko taillarrak eta konferentzixak hartzen dittuan proiektuak 5.496,75 euro.




Hitzarmenak siñatu eben alkartietako ordezarixak, talde argazkixan. / KOLDO MITXELENA




## Untzagako zinian aparkalekua egitteko proposamena

**UNTZAGAKO ZINIA HARTU EBAN LOKALAREN JABIAK BERTAN GARAJIAK EGITTEKO PROIEKTUA PRESENTAU DETSE** dorrian bizi diraneri aztertu deixen. Urte bi bete dira ziniak atiak itxi zittuala eta bertan lokalian aurrera eruateko moduko hainbat proposamenen ingurukuak kalian bolo-bolo ibilli badira be, bizilagunak zuzenian jaso daben lehelengo proposamena aparkalekua egitteko hauxe izan dala diñue. Edozelan be, ezer erabagi aurretik promotorakueri proiektua modu zihetzaguan azaltzeko eskatu detse. Lokalak eskintzen dittuan aukereri begiratuta, hiru plantako garajia sortu leikiala pentsatzen dabe.




## Autolikidaziñuarekin egitten dozu deklaraziñua?

Aurreko astian hasi ziran, Errenta kanpaiñiaren barruan, autodeklaraziñuak bidaltzen etxietara. Gipuzkoan iaz 211.000tik gora proposamen bialdu eben eta, urtero, %5ian jasotzen dabe kopuru hori. Baiña jendia autolikidaziñuarekin fixatzen da eta horren arabera egitten dau deklaraziñua edo datu horrek kotejatzen dittu?



**ITSASO BILBAO**  
29 urte  
irakaslia

Iñoiz jaso izan dot autolikidaziñua eginda, eta holakuetan amari galdetzen detsat badaezpada, asunto hórrek ez ditudalako ondo ezagutzen. Eta, autolikidaziñua jaso ez dotenian, bankora juan izan naiz deklaraziñua egittera.




**ION BAKAIKOA**  
29 urte  
bihargiña

Egixa esan, ez dot sekula jaso autolikidaziñorik. Dana dala, nere deklaraziñuaren proposamena aillegatzen bajata, bankora juango naiz, badaezpada kotejatzeko.

**LORE SARASUA**  
63 urte  
jubilaua

Azkeneko urtietan urtero jaso izan dot autolikidaziñua. Badaezpada, informau egitten naiz, eta bankora jotzen dot begiratu deixen.



**FERNANDO CAVANA**  
45 urte  
bihargiña

Ez dot sekula jaso autolikidaziñorik. Gaiñera, asesore baten bittartez egitten dot beti deklaraziñua. Eta, jaso ezkeru be, haren esku lagako neuke.



**ESTUDIOS ARRILLAGA**

PROIEKTUAK ERREFORMAK      LOKALAK ETXEBIZITZAK




**Arragueta, 12 EIBAR**  
Tel. 943 20 06 98

**ELGOIBAR Errosario, 15**  
Tel. 943 74 40 19

**IMH Elgoibar** *ingeniaritza imh*

**Heziketa Zikloak / Txandakako Ingeniaritza**



**Ate irekiak apirilaren 16an**  
GOIZEKO 11.00etan

**Etortzeko deitu 943744132ra edo apunta zaitetz [www.imh.es](http://www.imh.es) orrian**

Argazki erreportajea: SILBIA HERNANDEZ



1.500 metro karratuko azalera duen plaza publikoa dago eraikinaren kanpoko aldean, besteak beste hainbat taberna eta bestelako eskaintzarekin.




## Errenteriara bisitan, ERREBALERAKO EREDU bila

Errenteriako Niessen merkataritza zentroa bertatik bertara ezagutzeko irteera antolatu zuen Udalak astelehenerako, bertako erredua zuzenean ikusi, hari buruzko informazioa lehen eskutik jaso eta etorkizunean Errebalen egin nahi den zentroa nondik nora joan daitekeen ideia osatzen joateko. Hainbat ordezkaritza politikoen batera Merkatarien Federakuntzakoak, Eibarko Dendarien Elkarteak, merkatu plazako baserritarrak eta beste saltzaile batzuk joan ziren Errenteriaraino merkataritza zentrua ezagutzeko asmoz antolatuta-

ko aurkezpena. Izan ere, une honetan Errebalen merkataritza gunek berria jasotzeko proiektuarekin interesatuta dauden promotora bietako batek, Murias enpresak orain dela bost bat urte ipini zuen martxan Errenteriakoa eta enpresako ordezkariek bertan eman zituzten proiektuaren inguruko azalpenak, eibartarren zalantzak argitu eta sortzen joan ziren galderei erantzuna ematearekin batera.

Murias enpresako Paulino Barrenetxeak Errenteriako zentruaren ezaugarriak azaldu zizkien han batutakoek, ondoren merkataritza guneko instalazioak ikusteko bisitari ekin aurretik. Horretarako, merkataritza gunean bertan dauden sei zine aretoetako batean batu zuten eibartik joandako taldea. Eraikinaren ezaugarri fisikoei buruzkoekin hasi zuen bere berbaldia, besteak beste eraikinaren barruko distribuzioa, neurriak eta horrelakoak azalduta, Eibarraren egin nahi dutenarekin parekatu eta antzekotasunak azpimarratuta: "Niessen izeneko merkataritza gunek honen izena aurretik hemen egon zen lantegiari zor dio-gu. Izan ere, herriaren erdialdean, kale artean zegoen lantegia eraitsi genuen, ondoren orain ikusten duzuen merkataritza gunek hau jasotzeko. Aparkatzeko hiru solairu daude, lur azpian, eta dena 200 automobilendako tokia dago. Horrekin batera une honetan itxita dagoen supermerkatua, merkatu plaza, hainbat denda, bulego ba-



tzuk, umeendako 530 metroko txiki-park bat eta zine aretoa daude. Eta eraikinetik irtenda, tabernak inguratutako 1.500 bat metro karratuko azalera duen plaza publikoa dago. Horrez gain, lehendik martxan zegoen musika kontserbatorioa ere plazaren alboetako batean dago".

### Merkatu plazan 4.000 lagun egunero

Merkataritza guneari inguruan mugitzen diren erosleei buruzko datuak berriz, "oso onak" direla azpimarratu zuen: "Lehenagotik ere, hau egin aurretik merkatu plaza herriaren beste muturretako batean ze-







goenean beti ibili da jende mordo bertako postuetan okela, arraina eta bestelakoak erosten eta gaur egun ere joera horri eusten zaio, batzaz beste 3.000 eta 4.000 lagun joaten baita bakarrik merkaturako postuek betetzen dituzten 1.000 metroek hartzen duten eremura. Bestela, merkataritza gunea osotasunean hartuta, egunero hemendik pasatzen direnak 12.000 eta 14.000 bitartean ibiltzen dira. Egunero kopuru horien bueltan mugitzen gara, astebarruan edo asteburuan etortzen den erosle kopuruan ez dagoelako alde nabarmenik, eta horrelako zentruak ondo funtzionatuko badu hala behar du izan, bestela jai dago”.

#### Enpresaren menpeko postuak

Kudeaketari begira, “kostata eta ondo borrokatuta, baina azkenean merkatu plazako 17 salmenta postuak Udalaren ardurapean egoteari lagatzea lortu genuen, enpresaren menpeko izatera pasatzeko. Postuetako saltzaileei hori horrela izatea onartzea asko kostatu zitzaion, baina gaur egun

eta urte hauetako esperientziaren ondoren oso pozik daude, emaitza oso ona izan da”. Baserritarren kasuan, plazaren inguruko arkupeetan saltzen dituzte euren produk-



Ordezkarri politikoekin batera, Merkatu Plazako zein bestelako dendetakoek hartu zuten parte Erreterriako esperientzia ezagutzeko asmoz antolatutako bidaian.

tuak, besteak beste barruan postua izateak eskatuko lieken inbertsioa larregizkoa litzatekeelako. Eibartik joandako baserritarrek bat zetozen berba horiekin.

#### Salmentari eskainitako 10.000 metro

Errebalen proiektua garatzekotan “dagoen espazioak Erreterrian baino muga gehiago” ipiniko litzatekeela onartuta, dendarientzat eskaintzeko metroetan alde handirik ez litzatekeela egongo, kasu bietan 10.000 metroen bueltan ibiliko litzatekeela azaldu zuen Barrenetxeak eta, puntu horretara ailegatuta, eibartarrek lokalen prezioa galdetu zioten Muriaseko ordezkariari: “Hemengo dendetako metro karratua 18-20 eurotan dabil, baina Eibarren prezioa aldatuko litzateke, besteak beste hau zabaldu zenetik bost urte igaro direlako”.

Postuen artean batetik bestera ibili ondoren, eibartarrek Erreteriatik alde egin zuten, ikusitakoaren inguruan berbetan eta denaren inguruko hausnarketa soseguz egiteko asmo sendoarekin.

**EGOITZA NAGUSIA**  
Sibaberrito 20 - beheko, eskuma

**M FUNERARIA MUGICA**

Tanatorio Crematorio del Bajo y Alto Deba

**Tanatorioa eta Errozketa labia**

- Egoiberritako (Sijeno poligonari)
- Partikular, inbentario eta seguruak diren zerbitzuak
- Koroak - Etxelak - Urteurrenako ibilak
- Euskal Herri osoan ospitaleen birtzen zerbitzuak
- Nazio eta Nazioarteko trukeak

**Mugica Errozketa**  
Funtzioak labia

TELEFONOA (24 ORDU)  
**943 201 951**

# ARTOLA

jatetxea

## ASTEBURUKO DEGUSTAZIO MENUA

Lomo iberikoaren carpaccio-a  
Foie-a

Fruta, Burgosko gazta  
eta intxaurren entsalada

Legatza plantxan

Solomilloa plantxan edo  
Ahate konfit-a

Degustazio postrea edo  
Lima natural sorbetea edo  
Txokolat mousse-a Armagnac erara

Urteko ardoa, sagardoa edo beste

Astehenetik  
barixakura  
EGUNEKO  
MENUA  
**15 €**

Tokia gordetzeko:  
**943206348**


**25 €** + BEZ

Atzo hasi zan Trebiñun Korrikaren 17. ediziñua eta, 11 eguneko (euren gaba eta guztiz) ibilbidia beteta hillaren 17xan, domekan, amaittuko da Donostian, bertan egingo dan jaialdixarekin. Gure herritik, bestalde, datorren eguaztenian pasauko da, gaba aldian, 21.00ak bueltan. Sorluzetik etorritta, hamen gitxi gorabehera ordubeteko ibilbidia eginda (15 kilometro izango dira), eta aurreko urtietakuaren kontra, mendiruntz joko dau Korrikak, Markiñaren billa. Aurretik, baiña, arratsaldetik piztuko da girua herrixan, Korrika Txikixak herriko kaliak hartuko dittu-eta. Ez hori bakarrik: Eibarko Bizikleta plazan musikia eta jai-girua be izango dira behin Korrika Txikixak amaittuta.

**M**aiaitu, ikasi, ari... euskalakari" lelopian, bi mila kilometrotik gora egingo dittu aurten Korrikak, gau eta egun gelditu gabe. Trebiñun hasi zan atzo, 17.30xetan eta domekan zortzi amaittuko da Donostian, 13.00etik aurrera egingo dan ekitaldixarekin. Tartian, eta hiriburuak bakarrik kontuan hartuta, gaur Iruñiera helduko da, astelehenian Baionara, martitzenian Maulera goizez eta Donibane-Garazira eguerdiz, eguenian Gasteizera eta barixakuan Bilbora. Azken egunian goizetik hasi eta gaberaño iraungo daben programaziñua prestau dabe antolatzailliak: Euskalaketa lehiaketaren finala, kontzertuak eta umientzako ekintzak, bestiak beste.

#### 44 alkartek hartuko dabe parte herrixan

Oin dala urte bi baiño hiru alkarte gehixagok emon dau ize-na oinguan eta badagoz talde barrixak aurtengo ediziñuan, Xabi Zubizarreta Eibarko AEK-ko arduradunak diñuan moduan: "Eibarko Musikari Gaztien Elkartia (EMGE) eta Kokein lehelengo bidar izango dira eta baita Urkizu Eskolako Gurasuen Elkartia eta H1! alderdi barrixa. Eurekin batera, barrixak dira Alfako ordezkariak be -hónek hirutan doiaz banatuta (Alfa Arte, LAB-eko sail sindikala eta Alfako bihargiñak)- eta, aurten Markiñarako bidian Agiñagatik pasatuko garanez, Agiñako alkartia be barrittasuna dogu". Azken urtiota-



#### EIBARKO IBILBIDIA →

**Maltzaga  
Azitain  
Barrenna  
Barakaldo  
Urkizu  
B. Sarasketa  
Estaziño  
Errebal  
San Juan  
Untzaga  
Calbetón  
Bidebarrieta  
Urkizu  
Arragueta  
Errebal  
T. Etxebarria  
San Andres  
Torrekua  
Bariantea  
Amaña  
Legarre  
Itzio  
Erreginaren Etxea  
Ixua  
Aginaga**



ko ediziñuetan Ermutik sartu izan da Korrika gure herrixan, baiña oinguan kontrako bidia egingo dau eta, Sorluzetik etorritta, Maltzagan hartuko dau lekukua AEK-k eta, jarraixan, euskeriaren normalizaziñuan biharrian dabilzan herriko taldiak (EHE, ...eta kitto!, Euskara Batzordia) izango dira jarraixan lekukuaren porteadore. Gero, beste talde guztiak herrixan egingo dittue kilometro gehixenak, Arrateko bidetik gora Bizkaiko letreruan oingo ediziñuari agur esan aurretik. Hori bai: agurra amaierako Donostiako ekitaldira arte.

Eguaztena Korrikaz jantziko da gure herrixa, euskalakarixen bilgune bihurtuko, batez be arratsaldeko 15.15etatik aurrera. La Salle Isasi ikastetxetik urtengo dau Korrika Txikixak eta, Urkusurairño jaitsi eta gero, Eibarko Bizikleta plazan, San Andres parrokiaren onduan

amaittuko dau. "Urki Eskolak irakorriko dau mezua eta eskola bakotzeko biña partaidek Korrikaren kantua abestuko dabe; horko jaixarekin amaitzeko, Arno DJ-ak alaittuko desku jaixa", diño Zubizarretak.



AEK  
Matrallako  
Eibarko Gazteria  
EHE  
...eta kitto!  
Arrate Kultur Elk.  
Euskara Batzordea  
Urkizuko Eskola Guraso Elk.  
Mogel Isasi B.H.I.  
J.A. Mogel Ikastola  
Institutoa  
Unibertsitatea  
J.A. Mogel Guraso Elk.  
Kokein  
Hamakabat  
Aralar  
PSE-EE  
EAJ-PNV  
Ezker Batua  
EA  
Ezker Abertzalea  
Amnistiaren Aldeko Mugim.  
Etixerat  
Euskadiko Kutxa  
Iosu Egiguren-en Lagunak  
LAB  
Aspe  
Rugbi Taldea  
Astixa  
S.D. Eibar  
Euskal Bizikleta K.E.  
Dendarien Elkartea  
Udaleko Langileak  
Sostoa Abesbatza  
Klub Deportiboa  
Alfako Langileak  
Alfako LAB sail sindikala  
Alfa Lan  
Ustekabe  
Amañako Jai Batzordea  
Eibarko Musika Gazte Elk.  
Itzio Ikastetxea  
Hanka Motxak Bertso Eskola  
Agiña Elkartea

### Korrika Kulturala herrixan

Korrika, baiña, ez da antxitxiketaldixa bakarrik: gero eta indar haundixagua hartu dau azken ediziñotan otsaillian hasi eta Korrikaren amaierara arte irauten daben Korrika Kulturalak. Gure herrixan aurten Saharako maratoiari buruzko diaporama saiua egin zan martxuaren 10ian (...eta kitto!-k lagunduta), sagardotegi afarixa hurrengo egunian, Bertso Astia Klub Deportibuan 19ko bazkarixarekin, mendi-urteeria martxuaren 27-xan (Deporreko mendi taldiak lagunduta), "Sekula Bai" kabaret giroko antzerki emanaldixa aurreko egunian (Udalak eta Antzerki Jardunaldixen laguntzarekin) eta aste honetan ikusgai dagan

sendabelarren erakusketia. "Parte-hartze dexentia izan da be ekitaldixok" dioskue AEK-n, "batez be, Sekula Bai-n. Diaporamaren baloraziñua be ona izan da eta mendi-urteerian famelixa osuak hartu dabe parte lehelengo bidar".

### Hillabete asko biharrian

Kurtso hasierian, "urrian bertan, behin matrikulekin amaituta" hasten da prestatzen Korrika. Herrialde guztietako ideiekin hasten dira antolatze-lanak eta, "Korrika Kulturalaren menu orokorraren barruan, eskualde batkotxak ekitaldi bat aukeratzen dau. Guk kabareta euskaraz aukeratu genduan", diñue herriko AEK-kuak. Jarraixan herriko taldiekin biltzen dira (Bertso Eskolia, Deportibua, ...eta kitto!) eta Korrika Txikixa antolatzen hasten dira, ikastetxe guztiekin batzordia osatuz. Jarraixan, "Korrika nagusixaren batzordia osatzen dogu, deialdi irekixa egiñaz jendiak ekarpenak egin deixan eta talde bat eratzen da dendetarik-eta Korrika-lagunen billa jar-

Adin eta belaunaldi guztietako jendeak hartzen du parte Korrikan.



duteko". Aurreko ediziñotan parte hartutakueri deialdixa egitten jakue eta hortik etaratako datuekin organigrama prestatzen da.

### Herrixaren parte-hartzia

Aurrez aittatutako bihar guzti hori eginda, Korrikak herrittik pasatzerakuan bihar dan moduko ongi-etorrixa izan deixan antolaketia dator, oinguan laneguna danez zailtasun gehixago izan dabena. "Azken edizi-

ñuan oso ondo funtzionau eban danak, baiña oinguan Ustekabek, esaterako, ezingo dau parte hartu, horko partaide gehixenak herrittik kanpo dagozelako, estudixatzen. Halanda be, Eibar Kantuan-ekuak, koruetakuak, Musika Eskola-kuak... hor izango dira eta baleike EMGE-kuak be sorpresatxua ekartzia", diño Xabier Zubizarretak. Bestalde, txikito-pintxuaren egitasmua antolau dabe egun horretarako, "tabernetan musika euskeraz eskintziaz gaiñ".

### Donostian azken jaixa

Eta hor be lan egittia tokauko jakue Eibarko AEK-kueri: "Lau orduko txandia egingo dogu, probintziako guztion artian egin biharrekua izaten da-eta". Goizeko 09.30xetan helduko da Korrika Donostiako kalietara, ekitaldi nagusixenak 13.00etik aurrera hasiko badira be. Esku eta hanka guztiak bihar izan dittuan eta Trebiñutik datorren magia orduan kaleratuko da, mezuaren sekretua Bulebarrean jakiñarazten dabenian. Donostiako udaletxiaren onduan irakorriko da mezua eta jai-gunia hiru zatittan egongo da banatuta: Trinidadian, kaian eta Bulebarrian bertan. Bertara juateko ez dabe ezer berezirik antolau Eibartik: "Jendiak erraza daka bertara juatia eta ez dau merezi: tren eta autobus zerbitzu nahiko dagoz-eta".

## XABIER ZUBIZARRETA, antolatzaillia:

### "Eibartarron pluralismua toki gitxittan ikusten da"

- Eibarkuak Korrikarendako beti bezain plaza potentia izaten jarrizten dau?

Betidanik izan da eta holan jarraitzen dau izaten. Gure herrixan dakagun pluralismua toki gitxittan izango da eta, izaera hori historikua bada be, gaur egun ez dogu baztertu. Kolore askotako jendiak hartzen dau parte gurekin: izan politikuak, kirolarixak... Ikuspegi zabalak eskintzen dau beti Eibarrek.

- Jaiegunian izan biharrian, lanegunian tokatzia ez da ozto-jendiaren partizipaziñorako?

Badittu alde ez oso onak, baiña kontuan izan halanda be 43 taldek emon dabela izena. Nahiko eben guztiak ezingo dabe parte hartu, baiña gabaz eta mendittik juatia lxxuarantz badaka bere erakargarritasuna be. Eibarrek beti erantzuten dau, seguro.



TEEN-  
AJEA

**Naia Carballo**, **Deportiboko eski taldeko instituzioetako** bat izateaz gain, **aurten ere Euskadiko eta Gipuzkoako txapelketak irabazi ditu fondoko modalitatean eta, bi urtetan kanpoan izan eta gero, indartsu bueltatu da konpetiziora. Klubeko eski taldean, gainera, hainbat gazte sartu dira: batzordean, bestalde, erreleboa eskatzen dute.**

**NAIA CARBALLO, eskiatzailea:**

**“Badut gogoia ikasitakoa besteei erakusteko”**

**- Zelan joan da eski denboraldia aurten?**

Nahiko eskas, fondoko eskira-ko behintzat, elur gutxi egin du eta. Alpino modalitatean baduzu aukera gehiago

**- Zenbat urte daramatzazu eski munduan?**

12. denboraldia da. Pare bat urtetan lehiaketetatik kanpo egon naiz, baina aurten berriro bueltatu naiz eta, hasiera gogorra izan bada ere, ondo moldatu naiz.

**- Asko aldatu da egoera hasi zinenetik? Zenbat lagun zaudete taldean?**

Orduan hamabi bat lagun izango ginen eta, gero kopuru hori jaitsi bada ere, azken urte bietan hamar bat laguneko taldea osatu dugu. Txangoei dagokienez, umeenetan aurreko urteetakoari heldzen badiogu ere, helduenean asko jaitsi da kopurua.

**- Beste kirol modalitateerik praktikatzen duzu?**

Korrika beti ibili naiz, baita bizikletan, roll-eskian ere... bakoitzean ahal izan dudana ematen.

**- Txikitatik hasi eta, noiz arte jarraituko duzu eskiatzen?**

Eskian... ahal dudana bitartean jarraituko dut. Urte eta erdirekin

edo horrela hasi nintzen eta ez da nekatzen zaren kirol horietakoa. Neguan bakarrik jardun dezakezunez, gogo gehiagorekin hartzen duzu.

**- Eta, gaur egun hain zabaldua egon ez arren, 'pijoen' kirola dela esaten badizute?**

Ospe hori alpinorekin lotuago dagoela esango nuke, fondokoa gorrakoa da-eta. Nik ere txikitan alpinoa egin nuen, baina gero lagunekin fondokoa hasi nintzen.

**- Zein eski modalitate duzu gustukoena? Tokirik onenak?**


Klasikoa da gehien betetzen nauena. Estazioetan, Baqueira-koa aipatuko nuke eta Somportekoa ere ondo dago.

**- Zenbat eta gazteago hasi, eskian ere abantaila izango da...**

Hala da, beldur gutxiagorekin ekingo baitio beti. Motibazioa ere behar da, hau da, gogoia ikaste-ko. Niri erakutsi zidatena nik ere gazteenei erakusteko aukera izan dut Gabonetako irteeretan eta gustora jardun dut.


**- Badago erreleborik eski komisioan?**

Oraingo batzordeak hamar urte egin ditu eta jende berria behar da, beste gurasoen parte-hartzea.



*Marta Guenagaren* 1. urteurrena

Bera maitatu izan duzuen guztiontzat, berarekin tarte bat konpartitzeko aukera izan duzuenontzat, jarraitu gogoan izaten eta beti izango da gurekin, ikastolako lagunak.




## Gladiadoreen arteko “desapiyua”

Erromako zirkoetan giro-tako pelikula zaharretan makina bat alditan ikusi ditugu gladiadoreak borrokan, hare gainean izerdi patsetan, arnasestuka, ikuskizunarekin baino arduratuta ez dagoen publikoa entretenitzeko ahaleginetan. Ba eguazten arratsaldean gure herritik irten barik antzerako irudia ikusteko aukera paregabea izan zen, Euskal Telebistako lehenengo kanalean zapatu gauetan, 21.45etan ematen duten Finlandia umore saiorako egin zen grabazioari esker. Ainere Tolosak eta Aitziber Garmendiak aurkezten duten saioaren barruan astero herri bi aurrez aurre, lehia bizian ipintzen dituzte “Desapiyuan” eta orain arte, besteak beste Lekeitio vs. Ondarroa, Azpeitia vs. Azkoitia eta Leitza vs. Goizueta ikusi ditugun moduan, laster, maiatzaren 7an Eibar eta Ermua ordezkatzeko aste honetan lehiatu diren koadrila bieta-

ko ordezkariak ikusiko ditugu, nor baino nor, gladiadoreen borroketan inspiratutako norgehiagokan, 500 euroko saria eraman nahian. Eguraldia ere halakoa egokitu zitzaizen proban parte hartu zuten gazteei, Afrikatik etorritako aire beroaren eraginez eguzkipean, 32 gradutako temperaturari aurre eginez jokatu behar izan zutelako lehiaketa. Eta norgehiagoka gihatzen duen Anjel Alkain Julian lantzi bailitzan ikustera ohituta bagaude ere, gurean “Cesar” modura jantzi eta gisa horretara eman zuen grabazio osoa. Eta ez pentsa sufrimendua bakarrik proban parte hartu zutenentzat izan zenik, publiko modura joandako gaztetxoak eguzkitan eduki zituzten eta, itxura denez gidioiak hala eskatzen zuelako. Proba zeinek irabazi zuen ez dizuegu guk esango. Erantzuna, badakizue, egun batzuren buruan Finlandian ikusteko moduan izango da.



Argazki erreportjea: ANDER SALEGI.



## Dentistak

odontologia  
biologikoa eta orokorra  
terapia neurala

**miren albistegi sojo**

HELVIDE ETA TELEFONO BERRIAK

Errebal, 14  
t. 943 201 721


T. Anitua 16, behea  
Tel. 943 20 73 57

**AMAÑA**

**HORTZ KLINIKA**

**ARAT** Hortz Klinika

Hortz-osasuneko  
profesional talata  
zure zerbitzura



Hortz, konplexu eta  
kompletu harrarain  
Hundelako kontrol...

PREBENTIBARREK: Tel. 943 20 18 51

**m bista eder**



Inbarrak  
gazte egiten garu

implante eta  
Hortz-Estetikan  
aditua

Bista Eder, 19 - behea -EIBAR-  
943 70 00 82 / 943 20 84 75



Monica Martín Fonseca  
DOKTOREA

644 kolegiatu zkia.

**calbetón** hagin klinika

Tel. / Faxe: 943 03 33 03

Fermin Calbeton, 6 - 1. A

clinicacalbeton@euskaltel.net

**Pedro Etxebarria Gisasola**  
**DENTISTA**

09.00etatik 13.00etara eta 15.00etatik 20.00etara

**EGUNERO**

Calbeton 19 - 3. ezk.

Tfnoa: 943 20 72 17

# OSASUN



**GASTESI**

Hortz-Klinika

Jesus M<sup>a</sup> Gastesi - Ane Gastesi

Odontologia orokorra / Ortodontzia  
Implanteak / Laser Teknologia

Bidebarrieta, 10-2. eskuma 943 70 00 90



**IRAZABAL**  
clinica dental

Julian Etxebarria, 12 - 1. esk.

Tel. 943 208552

A. Zulueta, A. Murillo eta S. Sierra DOKTOREAK

ZERBITZUAK: Ortodontzia - Protesiak - Implanteak  
Hortz-Estetika - Haurrentzako Tratamendua

**BEGOÑA IZAGIRRE MENDIKUTE**  
**DENTISTA**

Untzaga 5 - 4. .... 943 70 23 85

**EGUNERO**



**invisalign**  
Ikusten ez den ortodontzia

**Ortodontzia**  
**ume eta**  
**helduentzat**

**M<sup>a</sup> Dolores Olaizola Doktorea**

**EIBARKO ZENTRO MEDIKOA**

Urkizu, 13 (Orbeako Dorreak)  
Telf.: 943 120 200 - 943 425 706  
www.mariadoloresolaizola.com

**MIGUEL SEMINARIO**  
**ZURIARRAIN ODONTOLOGOA**

Odontologia orokorra  
Ortodontzia  
Implanteak

Bidebarrieta, 7 - 1. esk. 943-702896

**UNTZAGA**  
**hortz-klinika**

**egunero**

Untzaga, 2 - 1. Eskuma  
Tfnoa. 943 70 25 92

## Errehabilitazioa

**CRF AMOSTEGI**



**ERREHABILITAZIOA**

- \* Fisioterapia / Errekuperaketa funtzionala
- \* Logopedia
- \* Inkontinentzia urinarioak
- \* Kirol medikuntza
- \* Ama izateko prestakuntza

Muzategi 2 (EIBAR) San Ignacio 2 (ELGOIBAR)  
Tfnoa. 943 20 34 46 Tfnoa. 943 74 33 74

*Patronato*  
*Eibarrés*

**Errehabilitazioa**  
**eta Fisioterapia**

ZENTRUKO SENDAGILEA: Ibarra doktorea

**Urkizu 9 - behean**

**EGUNERO** (08.00 - 19.30)

Tfnoak. - 943 12 12 80 eta 943 12 03 58  
Faxe - 943 12 03 58

patronatorehabi@terra.es


## Estetika klinika

**abontza**  
clinica estetica

- Barizeak
- Kirurgia Estetikoa
- Dietetika eta Nutrizioa
- Gorputz Birmoldaketa
- Fotodepilazio Medikoa

Egunero, 6. behea - Tel.-Fax. 943 906 044  
www.clinica-abontza.com

**Hemen zure tokia**  
**izan nahi baduzu**  
**deitu 943-206776**  
**telefono zenbakira**



# GGDA

## Fisioterapia




**ANE MENDIA**  
970 Kolegiatu zbkia.  
ARRAQUETA, 20  
T.F.: 943 53 06 42  
ane\_mendia@hotmail.com

**FISIOTERAPIA ZENTRUA**



**FISIOTERAPIA**  
ENENKO MAILAGARAI OSTEOPATIA  
901 kolegiatu zbkia. NEUROLOGIA  
NEURO-ESTIMULAZIOA  
S. Agustín, 2-4 - M. lokala Tel. 622 14 58 58



- fisioterapia  
- osteopatia  
- errehabilitazioa

Manu Sánchez FISIOTERAPEUTA

Juan Gisasola, 14  
Telefona: 943 12 70 78

## Okulistak



**JOSE ALBERDI**  
ARRATSALDEZ

San Juan 11 - solainurtea  
943 20 19 82



**Clínica Oftalmológica RECALDE**  
Oftalmología Clínica

Plaza Barria, 2 - 2º  
Tfnoa.: 943 201 844  
www.clinicarecalde.com

## Podologoak

- Kiropodiak, gogortasunak eta kailuak
- Atzazkal orbainduak
- Oinazpiko garatxoak (papilomak)
- Plantillak



**ELENA AIZPUN**  
**PODOLOGOA**  
124 kolegiatu zenbakia

**HELBIDE BERRIA**  
T. Etxebarria (DOS DE MAYO), 5 - 1. A  
**943 12 14 93**



**BIDEBARRIETA, 48 EIBAR**  
943 203050

**ERDIKO KALE 54 ARRASATE**  
943, 799746

**PODOLOGIA**  
**Erako Klinika**

Nerea Arregi (123 Kolegiatu zbkia.)  
Rosarito Rodriguez (125 Kolegiatu zbkia.)  
Amagoia Zubizarreta (122 Kolegiatu zbkia.)



**PODOLOGOA**

**Mainer Lopez Etxebarria**

Arragueta 2 Bis-B, Behea C  
Tfnoa. 943 82 04 88

65 Kolegiatu zbkia.



**PODOLOGO**  
T. ORTOPEDICO

**Iñaki Rivero Zabaleta**

Calbeton, 4 - 2.  
(Untzagako dorrea)

**Tel. 943 20 86 41**

## Psikologoak

**AROR**  
PSIKOLOGIA - LOGOPEDIA  
----- (Ume eta helduendako) -----

**Ana Artamendi eta Beatriz Ortueta**

- Afasiak
- Dislexiak
- Disfoniak
- Hizmoteltasuna
- Dislaliak
- Eskola arazoak
- Degluzio atipikoa

T. Etxebarria 10 - 6. ezk. (EIBAR) Tel. 943 20 27 15  
Artekalea 30 - 2. B (DURANGO) Tel. 94 681 90 79

**UME ETA HELDUENDAKO PSIKOLOGIA KABINETEA**



**Arrate Garitaonandia**

**HAUR, NERABE ETA HELDUENTZAKO TRATAMENDUAK**

Bidebarrieta, 27-B (3. ate) 943 20 22 66  
a\_garitaonandia@terra.es

**Psikologia klinika eta Psikoterapia zentroa**



**Oscar Mondragon Lili**

Urkizu, 13 - behea  
Telf. 943 206823 eta 686 859023

## Radiologia

**MADINA RADIOLOGIA**

- Mamografiak
- Dentsitometriak (osteoporosi ikerketa eta balorazioa)
- Hertz-scanner 3D-etan (implanteak ezarri aurreko hezur baloraziorako)

**TRAUMATOLOGOAK:** Azkarate eta González Bosch doktoreak  
**TRATAMENDUAK** hazkuntza faktoreetan aberatsa den plasmarekin

Toribio Etxebarria, 4 - 1. ezk. 943-202857

*Antxon Iraolagoitia Estaziño kalean jaiotakoa da; eibartar petoa, beraz, eta ez luke Eibar ezerengatik aldatuko. Ikurriñaren legeztatzearen eta demokraziaren etorreraren aurretik egokitu zitzaion Eibarko alkatea izatea (1973tik 1977ra arte), aurretik ere zinegotzi ere jardun zuen arren. Herriaren alde jardundako lasaitasuna nabaritzen zaio. Aurreko domekan Peña Taurina Pedrucho Eibarresa zezenzaleen elkarteak omenaldia egin zion Peña Taurinako presidentea izan zela gogoratuz eta urte haietan egindako lana errekonozitzeko. Gaur egungo krisi arazoekin, egokiago ikusten du herrian dugun zezen-plazari eustea, "berrikuntzekin, hori bai", beste berri bat egin aurretik.*

**ANTXON IRAOLAGOITIA**, alkate-ohia:

## “Udala herriko tailerrik garrantzitsuena da: hori ez genuke ahaztu behar”

**- Zelan gogoratzen dituzu alkate izan zinen sasoi haiek? Beste Eibar bat izango zan hura, ezta?**

37-38 urterekin hartu nuen kargua; aurretik, dena dela, zinegotzi ere jardun nuen beste zazpi urte-edo: zuhaitzak ipintzen-eta ibiltzea egokitu zitzaidan, horko delegatua izan nintzen. Javier Eguren-eta egunero deitzen zidaten, nik ezetz, baina azkenean amore eman nuen eta alkate izan nintzen lau urtetan. Hori amaitu zenean, akabo!

**- Zein proiektu izan zenituen esku artean eta, gaur egunetik ikusita, burutzea gehien betetzen zaituztenik badago?**

Aixelako urtegia eta Ipuruako kiroldegia: horiek izan dira nik bultzatutakoak. Sasoi hartan behin baino gehiagotan ibiltzen ginen suhiltzaileen kamioiarekin ura banatzen eta, emakumeak euren baldeekin zelan jasotzen zuten argazki batzuk genituela aprobetxatuz, haiek batu eta Donostiara eraman nituen gure egoera salatu eta indarra egiteko.


Han argi esan nien: 'Beharra egitera etorri naiz, baina eman erraztasunak!'. Madrilen ere, gure presa egin behar zituztenen artean 18. postuan egotetik 3.era pasatu zen: hor lehentasuna eman zitzaion, baina proiektua geneukalako! Boletinean azaldu zenean erabakia, hura gure poza!

**- Eta kiroldegikoa? Hor ere borrokatu egin beharko zenuten, ezta?**

Ez dakizue jendea zelan etortzen zen kirol instalazioak eskatzen, egunero... horren beharra ere bazegoen-eta! Eskubaloia indarra hartzen joan zen herrian eta Arratek talde indartsua osatu zuen, baina Untzagako plazan jokatzen zuen; horrelako mailarako ez zen tokirik egokiena. Mugitu beharra zegoen.

**- Donostiara, Madrilera... hara eta hona ibiltzea egokituko zitzaizun horrelako helburuak errealitate bihurtzeko...**

2.000 pezetako soldata nuen sasoi hartan eta, bai, Madrilera joaten ginenean nire autotan joaten ginen, autoa ondo beteta, baina



/ FELIX MORQUECHO

beste batek gidatuta: baldintza hori ipintzen nien. Horrelako ahaleginik inoiz ez dit atzera bota: herriaren alde edozer egiteko prest nengoen-eta, exageratzea tokatzen bada, egin egiten da, lasai.

**- Zure lana haintzat hartu dela ikusi duzu? Herriak eskertu dizu urte haietan egindako ahalegina?**

Ni herriarekin pozik nago; herritarrak nirekin ez dakit ondo. Hori bai: jarraitu dudana premisa beti izan da herriari zerbitzatzea, behar hori ondo betetzea eta poltsikora txanpon bakar bat ere ez eramatea hortik. Horrekin lasai nago.

**- Baduzu damurik herrian egin ez den proiekturen batengatik, ezinezkoa izan delako burutzea?**

Azkenean Mendaron egin zuten ospitalea gure herrian behar zuen! Aukera ere izan genuen hemen Erresidentzia egiteko eta ahaleginak ez ziren txikiak izan. Indarra ere bageneukan, Ermukoak-eta Eibarrera etor-

**ITZULPEN**  
ERA GUZTIETAKO TESTUAK  
ITZULTZEN DITUGU,  
euskaratik gaztelarara,  
gaztelaratik euskarara,  
eta ingelesetik euskarara.  
**ZERBITZUA**  
elkartea@etakitto.com

**Radio Eibar**  
CADENA  
**SER**  
104,0 FM

**Izadi**  
LORADENDA  
- Lora eta landare natural  
eta lehorrak  
- Ezkontzetarako lorak  
San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29



## "Hobe da zezenplaza berritzea berria egitea baino"

- **Zein irteera ikusten diozu zezenplazari?** Gaurko egoeran ezin dugu 9.000 euro gastatu plaza berria egiteko. Hobe da dagoena aprobetxatzea, beste erabilera batzuk izan ditzan, kirol-arlokoak etabar. Oraindik ez da aprobetxatu duguna.

- **Zezen zaletasuna ez da jaitsi herrian?** Bai, hori ere badago. Ni peñaren presidentea izan nintzenean 1.200 bazkide ginen; halakorik ez dago gaur egun. Ni ere gutxi joan naiz azken urteotan.

- **Dirua ere egiten zen sasoi batean, ez? Ospitalerako ez zen biltzen?** Baina ez zezenketekin; enbolatuekin jasotzen zen diru hori. Gero, toreatzaileei eskopeta batekin ordaintzen zitzaizen askotan. Jaime Ostos-ek, esaterako, Lucas Alberdirekin eta Juanito Txokorekin zuen hareman berezia.



1975ean inauguratu zuten argazkiko Arrateko Amaren irudia. "15 egunera ez da egongo" esan zutenek kale egin zuten. Irudian, Pedro Eiguren "Ixkua" Arrateko alkatea, Jesus Sanmiguel parrokoa eta Iraolagoitia. / PLAZAOLA

Aurreko domekan omenaldia egin zion Peña Taurina Pedrucho Eibarresak Iraolagoitari bera presidentea izan zenean egindako lana errekonozitzeko.



tzen baitziren anbulategira: populazio nahikoa genuan asmoa errealitate bihurtzeko, Madrilgo teknikoak hemen izan ziren Azitaingo eskonbrerako lurak begiratzan, Arrasatetik prest zeuden bertako labea hara eramateko... Azkenean, baina, aukera hori galdu zen.

- **Lan guzti horren lekuko da bisiten liburua. Harro sentitzeko modukoa, ezta?**

Bai, hona etortzen ziren guztiei bertan sinatzera behartzen genien: hor ikusi daiteke ate asko jo genituela. Eta erantzun zigutela. Ez da nire meritua, taldearena baizik. Gaur egungo errege-erreginak etorri ziren, printzeak zirela, Unibertsitate Laborala eta Armeria Eskola bisitatzera, baina baita ingeniario onenak ere. Jan ere, ondo jaten zuten hemen: "Txomin" era eramaten genituen.

- **Taldearen meritua aipatzen duzunez, Bracons sasoi hartako arkitektoa ekimen askotan izan zen...**

Lan ikaragarria egin zuen, 1959ko herriaren Plan Orokorrearekin hasita. Zezenplazako proiektua ere berea izan zen, eta harrizko eta burdinezko kalitatezko piezak Asturiaseko Rodex enpresak ekarri zituen.

- **Gaur egun ikusten duzu arazo berezirik herrian oraindik konpondu ez denik? Zertan ahalegindu beharko ginateteke?**

Ura ez galtzeak beti arduratu nau eta, batez ere, kanpotik ekartzen dugunez, Urkullutik, komeniko litzateke konduzioari erreparatzea: sinestuta nago horko %30 eta %40en artekoa galtzen dugula. Hala ere, herriak asko hobetu du.

- **Askok aldatu da Eibar urte hauetan? Bada zeozer ezberdin egiten gaituena?**

Eibarrek beti heldu dio bere izaerari; dena dela, azken urteotan litekeena da irudi hori pixka bat galtzen joatea. Inguruko herririk demokratikoena dela esango nuke. Gizakia askea da eta hemen errespetatzen da askatasun hori.

**Elkarrizketa amaitu aurretik hainbat anekdota kontatu digu Iraolagoitaiak: "23.30etatik aurrera ezin da kantatu" zioen kartela zelan aldatu zuten "ezin da txarto kantatu"-ra, debekua saihesteko; entierro zibil batean bati, berak hala eskatuta, Legioaren Himnoa zelan abestu zioten, soldadutzan zeudenentzako bidalitako permiso eskaerak jaietarako...**



## JUAN BARRUTIA ARTETXE "ARNO"

1. urteurrena (2010-IV-4)

Bere aldeko **URTE-MEZA** ospatuko da **apirilaren 10ean** (domeka),  
eguerdiko **12.00etan**,  
**Karmengo** Amaren parrokan.

**Zure soinua entzuten ez da sekula inor aspertu, ez zahar, ez gazte, ezta umerik inor ez duzu baztertu. Zenbat lan eder egina zaren nolatan hemen aztertu, gure parte, zeruko Aitak beharko dizu eskertu.**

**NIEVES, JOSEBA ETA EIDER, MAITE ETA OSCAR, ETA MAIALEN ETA AIZEA**

## Eibar-Logroñés, bihar 20.00etan, taldeari laguntzeko egunean

**AURKARI GOGORRA IZANGO DU MANIX MANDIOLAREN TALDEAK BIHAR ARRATSALDEAN, LOGROÑÉS BERRINDARTU EGIN BAITA** sasoi batean izan zen talde historikoaren mailaren bila. Igoerako promozioan sartzeko lehian dago gaur egun, 4.arekin berdinduta, eta puntuak lortzeko asmoz dator Ipuruara. Ei-



barrek ere ezin du estropezurik izan, Carlos Pousoren Mirandések aurea hartu baitio sailkapenean puntu biko aldeaz. Klubari Laguntzeko Eguna da eta bazkideek ere ordaindu beharko dute sarrera (10 euro helduek eta 5 umeek) eta, giroa pizteko asmoz, zuzendaritzak ogitartekoak banatzea erabaki du Ipuruara doazen guztien artean.

## Asier Laskurainek irabazi zuen Barinagako arrantza lehiaketa

**DIANA ELKARTEAK ANTOLATUTAKO DOMEKAN BARINAGAN JOKATUTAKO AMUARRAIN ARRANTZA LEHIAKETAN,**

senior mailako hamar arrantzalek jardun zuten eta infantil mailako beste bik. Asier Laskurain izan zen irabazlea, Javier Zulueta eta Juan Jose Amadorren atzetik; guztira 16 amuarrain hartu ziren, handiena 280 gramokoa.



## Urkiko txikienek estu hartu zuten liderra

**URKI FOBALL TALDEKO INFANTIL TXIKIKO TALDEAK 2-1 GALDU ZUEN ANAITASUNA MULTZOKO LIDERRAREKIN,** partidu bikaina jokatu arren. Eibartarrak aurreratu egin ziren markagailuan, García-ren golarekin, eta aukera

izango zuten bi goleko aldea lortzeko epaileak "penalti argia" adierazi izan balu. Ez zen horrela izan eta, azkenean, batez ere fisikoaren eraginez (Urkikoak txikiagoak dira aukeran), azkoitiarrek markagailua iraultzeko aukera izan zuten.



Shalunov Bidebarrieta kalean kokatutako helmugan sartzten. / MAIALEN BELAUSTEGI

## Shalunov-en erakustaldia Valenciaga Memorialean

**LOKOMOTIV TALDEKO EVGENY SHALUNOV-EK IRABAZI ZUEN DOMEKAN** Valenciaga Memorialearen 40. edizioa eta, garaipen horrekin, bere bigarrena eskuratu du Espainiako Kopan (Macario Sari Handia irabazi zuen aurretik). Euria izan zen nagusi proban eta horrek asko gogortu zuen lasterketa; errusiarrek, baina, ondo erantzun zuen eta berarekin

ihesi zihoazen guztiak atzean laga zituen Ixuako igoeran. Azken kilometroetan ondo eutsi zion, gainera, minutuaren inguruko abantailari eta atzetik jarraitzen zion hirukotea minutu eta erdira helmugaratu zen. Mendiko sailkapena ere berarentzat izan zen. Aitor González izan zen Debabarrenako ordezkari onena, 20. postuan, irabazlearengandik ia hiru minutura.

## Hiru-txirlo tiraldia Asola-Berrin


**EIBARKO BOLATOKIAK HARTUKO DU GIPUZKOAKO HIRU-TXIRLO TXAPELKETAKO BIHARKO TIRALDIA, OHIKOA DENEZ, 17.00-ETATIK AURRERA.** Lasturren aurreko asteburuan jokatutako azken jardunaldian Asola-Berriko Bittor Astigarraga eta




Floreagako Erik Muñoz izan ziren onenak, zazpi txirlorekin. Sailkapen orokorrean, Asola-Berriko Arkaitz Rodríguez eta San Migueleko Imanol Osoro daude lidergoan, 13 txirlorekin, Asola-Berriko Gaizka Unamunzaga eta Floreagako Erik Muñozen aurretik; azken horiek txirlo bakarrera badaude, bi gutxiago bota dituzte Bittor Astigarraga eta Beñat Gómez eibartarrek.

## Bihar jokatuko da Unben tenis txapelketaren finala

**BIHAR EGUERDIKO 12.00-ETAN JOKATUKO DA UNBENKO TENIS ZELAIAN** Eibarko tenis txapelketaren 1. edizioko finala. Parte-hartze bikaina izan du torneoak eta Agustín Quintana eta Imanol Argüeso izango dira horko protagonista.





## Herriko ordezkari bi Ermuko duatloiko hamar onenen artean

**ZAPATUAN JOKATUTAKO ERMUKO DUATLOIAN 160 PARTE-HARTZAILE INGURU IZAN ZIREN** 5 kilometro antxixiketan, 20 bizikleta gainean eta beste bi eta erdi antxixiketan egiteko. Eibar Triatloi Taldeko Jose Alberto Martínez 9.a izan zen gizonzkoen maila absolutuan, ordubete eta 31 segundoko denborarekin, eta Ane Ziaran 8.a emakumezkoen mailan, beste-tela 23 urtetik azpiko onena izan zelako-, 1h13'29" denborarekin.

Asteburu honetan, bihar Gernikako nazioarteko XVI. sprint duatloia jokatu da, mundu mailako onenekin; eta, etzi, Azkoitiko duatloia XII. edizioa.

## Arrateren aurrerapausua Toledon lortutako berdinketarekin

**TALDEAK GAUR EGUN DITUEN ARAZOAK IKUSITA -EKONOMIKOAK ZEIN KIROL ARLOKOAK- MAILA HANDIKO NEURKETA JOKATU ZUEN** Julian Ruizen taldeak zapatuan Toledon; ez hori bakarrik, jaitsierari ihes egiteko tarte ere zabaldu zuen aurkari zuzenaren aurrean. Orain jaitsierako postuekin puntu biko aldeaz izateaz gain, Toledorekin gol-averagea ere alde daukate eibartarrek eta horrek lasaitasun pixka bat dakar Arratekoentzat, liga amaitzeko sei jardunaldi bakarrik falta direnean. Asteburu honetan ez da partidurik izango.

Bestalde, beheko taldeko jokalariek gazte askok egin dute debuta azken aldira Asobal ligako taldearekin, tartean Larrañaga, Garetxana eta Telletxea. Rédei, Berrios eta Száboren denboraldi amaierara arteko bajekin, Kurilenko beteteranoak hartu du azken aldira taldearen pisua bere gain eta Toledon lortutako 28nako berdinketan bera izan zen goleatzaile nagusia.



## Udaberri Torneoko partiduak Astelenan

**GAUR, ARRATSALDEKO 20.15-ETAN HASITA, LAU ETA ERDIAREN BARRUKO** hiru partidu jokatu dira Astelenan, hirurak ere Udaberri Torneoaren barruan. Kadete mailan, Larrauri eibartarrek Intxurre taldeko Iribarreni egingo dio aurre eta, jarraian, Ruiz Klub Deportiboko ordezkariak Zumaiako Iriondo izango du aurrez-aurre. Hirugarren partiduan, bestalde, Egaña herriko ordezkariak Elgoibarko Lagunak taldeko Txurruka izango du aurkari. Hiruren kasuan, lau partiduren ligaxka jokatu beharko dute eta gaurkoa da lehenengo jardunaldia.

## Hierros Anetxeko rugbilariek domekan jokatu dute L'Hospitalet-en

**ISASAREN MUTILEK EZ ZIOTEN AURPEGIRIK GALDU KATALUNIARREN DENBORALDI HONETAKO TALDE AHALGUZTIDUNARI ETA,** azken honek beste garaipen bat lortu arren, 3-10ekoak aukera batzuk eskaintzen dizkie oraindik eibartarrei. L'Hospitalet-ek talde indartsua osatzen dutela erakutsi zuten eta kanporaketa gainditzeko hautagai nagusiak dira; hala ere, eibartarrek bere onena emango dute domekan, 12.00etatik aurrera. Kanporaketa hau gainditu ez arren, Hierros Anetxek aukera berria izango du, Madrillgo Arquitectura edo Bartzelonako BUC-en aurka.



## Ezusteek foball-zaletuen lidergorako borroka estutu dute

**GUTXIEN ESPERO ZENEAN, DURANGO LIDERRAK GALDU EGIN ZUEN AZKEN JARDUNALDIAN TANKEMANS-ekin (2-3)** eta Teknografik sailkapeneko bigarrenak amore eman du JoserAuto hirugarrenaren aurrean (1-3). Emaizta horiekin, JoserAutok hiru puntutan murrizten du lehenengo biekiko alde eta orain Durangorengandik bost puntura dago eta Teknografikengandik bira. Bestalde, torneoko zigor batzordeak hiru puntu kendu dizkie Caserío, Tankemans, Areto eta Lanús taldeei.

## Recio waterpolista Euskadiko selekzioan

**HILAREN 15-EAN HASIKO DEN DENBORALDIKO TORNEO GARRANTZITSUENEAN IZANGO DA** Mikel Recio Urbat-Urkotronik-eko waterpolista. Autonomi Erkidegoen arteko estatuko finala izango da jokoan Jaénen eta, batez ere kataluniarrei aurre egiteko, hautatu dute eibartarra boia postuan.

Bestalde, Waterpolo Navarraren aurka barixakuan jokatu dute partidu bikainean, Eibarko taldeak 8-7 galdu zuen, modu horretan liga irabazteko aukerak galduz. Nafarrak 7-1 irabazten joan eta gero, 6-0ekoa sartu zieten eibartarrek eta partidua berdintzea lortu. Orain igoera faseari ekingo diote, etzi hasita Easoren aurka Orbean.

## Eskubaloiko fase finala Ipuruan

**GAURTIK DOMEKARA ARTE EUSKAL LIGAKO MUTILEN JUBENIL MAILAKO AZKEN FASEA** hartuko du Ipurua, aurreko faseetan sailkatutako lau onenen artean jokatu beharrekoa. Eibarko taldeak, gainera, denboraldiko partidu guztiak irabazi ditu eta horrela jarraitzea espero du: gaur, Zarautzen aurka (20.15), bihar Bidasoren kontra (17.30) eta etzi Loyola Indautxuren aurrean (12.45).


## Hitzaldi bitartez Errepublika gogoan

**II. ERREPUBLIKAREN ALKARRIKAPENAREN 80. URTEURRENA DATORREN ASTEAN BETEKO DELA OSPATZEKO PROGRAMA-ZIO BEREZIA** antolatu du Udalak eta, horren harira, datorren astean hainbat hitzaldi hartuko ditu Portaleak: astelehenean, hilaren 11n Kirmen Uribe idazle ondarrutarrak saioa eskainiko du "8x10. Zortzi idazle Errepublikako" izenburuari jarraituta. Hitzaldiarekin batera, hainbat olerki irakurriko ditu Uribek. Hurrengo egunean, berriz, José Antonio Fraguas "Forges"

izango da gonbidatutako hizlaria. Aurreko barixakuan Errepublikari buruzko biñetekin osatutako erakusketa inauguratu zuen marrazkilari ezagunak (hilaren 30era arte egongo da ikusgai) eta erakusketaren izenburu bereko hitzaldia ematera etorriko da Eibarrera martitzenean: "La República en la persona muchos bienes proporciona (¡Vamos digo yo!)". Eta hitzaldi-sorta agurtzeko, Jesús Gutierrez historialari eibartarrak "El sistema de bibliotecas y la educación en la II. República" izenburuko hitzal-

dia eskainiko du, Eibarko errealitatea gerturatzeko asmoari jarraituta. Hitzaldi guztiak Portaleko areto nagusian 19.00etan hasiko dira.

Horrez gain, Juan San Martín liburutegian Errepublikari eskainitako interesgunea prestatu dute eta bertan argazkiak, liburuak, filmak, nobelak eta bestelakoak interesa duen edozeinentzat eskuragarri ipini dituzte. Apirila osoan egongo da martxan interesgunea eta bertan dauden dokumentuak maileguan hartzeko aukera eskaintzen dute.



Kirmen Uribek astelehenean eskainiko du "8x10 Zortzi idazle Errepublikako".

## Haurrendako errezeta liburua

**DATORREN ASTEAN, EGUAZTENEAN AURKEZTUKO DUTE "MI BEBÉ COME SAÑO" LIBURUA DONOSTIAKO OKENDO KALEAN ALFAK DUEN DENDAN,** 18.30etan. Amaia Díaz de Monasterioguren nutrizionistak idatzitako liburuan umeentzat bereziki pentsatutako errezetak bildu ditu, beti ere txikien osasunari begiratuta. Errezeta guztiak Alfa enpresaren "bbrobot" berriarekin egiteko moduko-



ak dira eta sukaldarien beharra erraztea helburu duen errobota erabiltzean etekin handiena lortzeko aholkuak eta bestelakoak ere azaltzen ditu. Minutu gutxitan oso jaki osasungarriak nola prestatu modu praktikoan erakutsiko du idazleak datorren asteo aurkezpenean. Liburua Alfa eta Imaginarium dendetan dago salgai, 14'90 eurotan eta interneten [conservacionalfa.es](http://conservacionalfa.es) helbidean ere eskuratu daiteke.

## Bi lagun Europaren bihotzean

**ASIER SERRANO ETA HARKAITZ CANO DATORREN ASTEAN, APIRILAREN 14AN TXEKIAR ERREPUBLIKAKO BRNO HIRIAN IZANGO DIRA,** "Bi lagun Europaren bihotzean" izenburuko emanaldia aurkezten. Ekimean parte hartuko duten lagun bien azalpenei jarraituta, Canok bere zenbait poema irakurriko ditu, Serranok gitarrarekin lagunduta, eta azken honek bere hainbat abesti ere kantatuko ditu. Behin haraino bidaiatuta, idazle biek euskal literaturaren inguruko hitzaldia emango dute Moraviako unibertsitate nagusian, apirilaren 15ean. Serranok eta Canok aurretik ere elkarrekin jardundakoak dira, besteak beste euren eskutik 1993an sortu zen Lubaki Banda proiektuan, baina taldea desagertu zela urteak igaro dira eta harrezkero biek elkarrekin zerbait egiteko "gogo bizia" izan dutela aitortu dute eta Br-

nokoa "elkarren sorkuntzak uztartzeko aukera paregabea" suertatu zaiela diote. Esperientzia honen ondoren eta dena ondo bidean, proiektu hau aurrerago ere beste toki batzuetan aurkezteko aukerari atea zabalik lagako diote.



## Mateo Guilaberten argazkiak Durangon

**DURANGOKO EZKURDI UDAL ARETOAN MATEO GUILABERT EIBARTARRAREN ARGAZKI ERAKUSKETA** dago martxan egunotan. Klub Deportiboko argazkilaritza taldeko kideak ikusgai ipinitako argazkiak domekara arte egongo dira ikusteko moduan, gaur 18.00etatik 20.00etara eta zapatu eta domekan 12.00etatik 14.00etara eta 18.00etatik 20.00etara.

## Dantzari eskainitako saioa

**APIRILAREN 29-AN NAZIOARTEKO DANTZAREN EGUNA OSPATUKO DA, BAINA ASTE SANTUKO OPORRAK DIRELA ETA, Biraka** dantza taldekoek horren inguruan antolatutako emanaldia aurreratzea erabaki dute eta bihar (zapateria) eskainiko dute, 18.30etan hasita Untzaga plazan. Josu Mujika elgoibartarraren gidaritzapean, 7 urtetik hasi eta 30 urtera bitarteko 250 gaztek dantza erakustaldia egingo dute.

Biraka dantza taldeak 2006an ekin zion Dantzaren Eguna ospatzeko ekitaldiak antolatzeari eta Eibarren ez ezik, Elgoibar, Mendaro eta Deban ere dantzatu dute beste batzuetan, urtetik urtera txandaka aldatzen joaten direlako. Biharko emanaldia, gainera, are bereziagoa izango da, dantza emanaldiaren os-



tean flash-moba han bertan grabatzeko asmoa dutelako. Biraka dantza taldeak ekainerako presatzen diharduen "Eurodancing 2011" jaialdiarekin lotutako grabazioa izango da.



## Usartzako erromeria bueltan


**DOMEKAN BERRIZ ERE ERROMERIA OSPATUKO DA USARTZAN, 16.30-ETAN HASI ETA 18.00-AK BITARTEAN.** Angel Perez Sarasketa soinu-joleak girotuko duen erromeriaren aurretik, Krabelin hotelean bazkaria egingo dute alde zuzeneko txartela erosi dutenek. Orain dela 40 urtetik gora laga zitzaion Usartzan asteroko erromeria eskaintzeari, baina hori ezagutu zu-

ten hainbat lagun batu eta ohitura zaharra gogora ekartzeko asmoarekin saio berezi hau antolatzera animatu dira. Jendearen erantzunaren arabera, urtean zehar hainbat erromeria gehiago antolatzeko aukera aurreikusten dute antolatzaileek, inguruko beste herri batzuetan egiten direnekin bat egin eta zirkuito modukoa osatuta.

## Zapatu eguerdian hasiko da Bazkide Jaixa

**BIHAR EGUERDIAN, PISKOLABISAREKIN ABIATUKO DA ...ETA KITTO! EUSKARA ELKARTEAREN BAZKIDE JAIXA ARMERIA ESKOLAN** (frontoian). 2009an lehenengoz egindako jaialdiaren ildoari eutsiko dio bigarren edizioak ere, egun osoa beteko duen egitarauari jarraituta: 12.00etako piskolabisaren ondoren, 14.00ak aldera, jaira gerturatutako jende guztiarekin talde-argazkia aterako da. Aurretik, baina, umeentzako antolatu diren tailerrak eta puzgarriak martxan egongo dira, bazkaltzeko ordua ailegatu bitartean goseaz egin dezaten. Bazkaria 14.30etan hasiko da, honako menuarekin: bertan prestatutako den paella erraldoia, edaria, postrea eta kafea. Bazka-

lostean, 16.30etan ailegatuko da pailazoan zirkotailerrarekin eta jarraian, 17.00etan, bingo herrikoien ordua izango da. Jaialdia agurtu aurretik, 17.30etatik aurrera DJ Arnok alaituko du giroa.



## laburrak

**ERLAJAZIO TAILERRA**  
Altzoa alargunen elkarteak erlajazio tailerra antolatu du apirilaren 13tik ekainaren 15era bitartean. Emakundek eta Eibarko Udalak diruz lagundutako ekimena da eta informazio gehiagorako 695769310 telefono zenbakira deitu daiteke (Mari Paz).

### MURSEGOREN KONTZERTUA

Gaur 21.00etan Mursego eibartarrak kontzertua emango du Donostiako Kortxoenea gaztetxean (Gros-en). Maite Arroitauregik eskainiko duen emanaldian Physis Versus Nomos izango da kartela osatzen.

### ELIKAGAIEN MANIPULAZIOA


Elkolab S. Coop elkarteak elikagaiak manipulatzeko beharrezko jardun behar dutenentzat ikastaroa antolatu du. Apirilaren 14an hasiko dira klaseak, Armeria Eskolan eta 16.00etatik 20.00etara bitarteko orduetara emango dituzte. Matrikulak 45 euro balio du (35 euro langabetuentzat). Informazio gehiagorako 943533303 telefono zenbakira deitu daiteke.

### UDALEKUAK

Foru Aldundiak antolatzen dituen udalekuek izena aurretik emateko epea apirilaren 15ean amaituko da 14-17 urte bitartekoentzat. Informazio gehiagorako eta izena emateko [www.gipuzkoa.net/oporral](http://www.gipuzkoa.net/oporral) di webgunera jo daiteke.

AGUS  
PEREZ

Kolaborazioa




## Amets galduak eta ipuinak

Datozen egunotan beste antzezlan bi ekarriko dizkigute Eibarko Antzerki Jardunaldiek, biak ala biak Coliseo antzokian. Larunbat honetan, **ALI, AMONA KANDELARIA ETA ALFONBRA HEGALARIA** lanak fantasiatzko ipuinen mundura eramango gaitu. Haur-emanaldi honek tanto asko ditu gozagarria izateko -Toni Alba egileen artean dago, Begoña Bilbao zuzendaritzan...-, eta euskararen freskotasuna gauza segurua da Inma Infiestaren eskutik.

Errepublikaren egunean euren amets galduak omenduko dituzte **ERRAUTSAK** antzezlaneko kideek, Ximun Fuchs baxenafarraren zuzendaritzapean. Muntaia aurtengo errebelazioa izaten ari da, eta Donostiako Antzerki Saria ere irabazi berri du. Taula gaineko sei antzezleek erraietatik hitz egiten digute bizitzaren gaineko gauza sakonez, eta erraietatik antzezten dute, emanaldian zehar arima eta gorputza jokoan jarriz. Bestalde, haietariko bakoitzak bere herriko erara hitz egiten du, baina euskalkien ugaritasuna ez da batere oztopo ikusleak ere erraietaraino hunkituta senti daitezen.

### “Hámster”



*Juanjotero-Triángulo*

BARIXAKUA


8

20.30  
Coliseoan

EGILEA:  
Santiago Cortegoso  
ZUZENDARIA:  
Fernando Soto  
ANTZEZLEAK:  
Marian Bañobre,  
Juanjo Otero  
IRAUPENA: 65 minutu

Gizakia animal kaiolatu dela metafora hartuta, bi marraskari (arra eta emea) gai unibertsalez mintzatuko dira. Gizakia berez da kontrajarria, erabakietan aurrera edo atzera egin dezakeena; dualtasun hori izango da ikuskizunaren muina, umore zentsu handiarekin landua, hamsterrek bizi duten egoera aspergarriaren erdian.

### “Ali”



*Txalo Produksioak*


ZAPATUA

9

17.00  
Coliseoan

EGILEA:  
Pere Casanovas  
ZUZENDARIA:  
Begoña Bilbao  
ANTZEZLEAK:  
Alfonso Díez,  
Aitor Ferdinando  
IRAUPENA: 60 minutu

### “¿María?”



*En Blanc*

MARTITZENA


12

20.30  
Coliseoan

EGILEA:  
Marta Barceló  
ZUZENDARIA:  
Biel Jordá  
ANTZEZLEAK:  
Laura Pons, Aina  
Compte, Aina de Cos  
IRAUPENA: 70 minutu

Hiru emakume dira: amona, alaba eta iloba, euren bizitza naturala erakusten. Denboran zehar egiten den bidaia, hasi 20. hamarkadan eta 90.ean amaitzen dena. Horrela, gerra zibila, turisten etorrera masiboa eta beste islatzen dira. Alzheimer gaixotasuna sufritu zuen zuzendariaren amonaren bizitzan iradokitutako esperimentua.

### “Errautsak”



*ArteDrama-Dejabu*

EGUENA


14

20.30  
Coliseoan

EGILEA: Igor  
Elortza, Unai  
Iturriaga  
ZUZENDARIA:  
Ximun Fuchs  
ANTZEZLEAK:  
Ander Lipus,  
Manex Fuchs,  
Miren Gaztañaga  
IRAUPENA:  
90 minutu

# laztanak emoten...


Zure senide edo lagunena bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena (bikoteak...) 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguazten aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.



Zorionak, MARKEL, zure bigarren urtebetetzian. Aitta, ama eta famelixa guztiaren partez.



Zorionak, MARKEL Maiora Maiztegi, bixar hiru urte egingo dozuz-eta. Segi zaren modukua izaten. Famelixakuen partez.




Zorionak, JULEN, astelehenian bederatzirte egin zenduaz-eta. Muxu haundi bat danon partez.




Zorionak, LUR (bixar egingo dozuz) eta ELENE (hillaren 5ian egin zenduaz-eta), zuen 3. urtebetetzian. Etxekuen partez.




Zorionak, MIKEL, martitzenian zortzi urte egin zenduaz-eta. Etxekuen partez.



Zorionak, LIHER, atzo urtebete egin zenduan-eta. Muxu haundi bat danon partez.



Zorionak, GAROA, bixar zortzi urte egingo dozuz-eta. Muxu haundi bat Enara, Haizea eta etxekuen partez.



Zorionak, MAITANE, gaur zortzi urte betetzen dozuzelako. Muxu haundi bat famelixaren partez.

## HILDAKOAK

- Maria Basterra Sarrionaindia. 93 urte. 2011-III-30.
- Jose Angel Esteban Unamuno. 62 urte. 2011-IV-1.
- Maria Hermosilla Lucendo. 84 urte. 2011-IV-1.
- Juan Akarregi Zapirain. 77 urte. 2011-IV-4.

## JAIOTAKOAK


- Irati Astigarraga Berasaluze. 2011-III-22.
- Naia Astigarraga Berasaluze. 2011-III-22.
- Maria Rebolledo Urbieta. 2011-III-26.
- Elaia Dasilva Patino. 2011-III-29.
- Unai Hazas Ledo. 2011-III-30.
- Martina Kaperotxipi Orbea. 2011-III-30.
- Ianire Hajar Herrera. 2011-III-30.
- Maddalen Arrazola Amiano. 2011-III-30.
- June Alzaga Arronategi. 2011-III-30.
- Eneko Olañeta Carracedo. 2011-IV-2.
- Markel Olañeta Carracedo. 2011-IV-2.

## zinea Coliseoan



**"Soy el número cuatro"**  
Zuzendaria: D.J. Caruso  
Aktoreak: Alex Pettyfer, Timothy Olyphant, Teresa Palmer, Dianna Agron

**8an: 22.30**  
**9an: 17.00, 19.45 eta 22.30**  
**10ean: 17.00 eta 19.30**  
**11n: 20.30**



Zorionak, LUKAS, astelehenian hiru urte egingo dozuz-eta. Muxu haundi bat etxekuen partez.

## AURREKOAREN EMATZA

3	6	8	4	5	7	2	8	1
2	4	0	1	3	6	5	7	9
5	1	7	2	8	0	4	6	3
6	3	2	0	7	4	9	1	5
7	9	1	3	0	5	8	2	4
4	8	5	9	1	2	7	3	6
9	7	4	6	8	3	1	5	2
1	6	6	7	2	9	3	4	8
8	2	3	5	4	1	6	9	7



**"Sin límites"**  
Zuzendaria: Neil Burger  
Aktoreak: Javier Beltrán, Robert Pattinson, Matthew McNulty, Marina Gatell

**8an: 22.30**  
**9an: 17.00, 19.45 eta 22.30**  
**10ean: 17.00 eta 19.30**  
**11n: 20.30**



**"Rio" 3D**  
Zuzendaria: Carlos Saldanha  
Pertsonaiak: Jewel, Tulio ornitologoa, Raphael Tukana, Luis, Linda

**8an: 22.30**  
**9an: 19.45 eta 22.30**  
**10ean: 17.00 eta 19.30**  
**11n: 20.30**

## SUDOKUA

## DENBORAPASAK

				6		7		
			4		8	9		
5	7				3			
	5	9		8			6	
3			7		1			2
	8			5		3	9	
				6			4	9
		4	8		2			
		3		4				

## horoskopoa

**ARIES**

Ideiak argitu ezinik zabiltza eta korapilo demasa duzu buruan. Ez zaitez hain hotza izan eta zabaldu atea sentimenduei.

**TAURUS**

Proiektu berri eta interesgarriak agertuko zaizkizu laster. Adi egon zure poltsikoen eragina izan dezaketean erabakiekin.

**GEMINI**

Lasai hartu gauzak; ez izan presarik. Badakit irrikitan zaudela; baina, gauzak astiro eginez gero, hobeto irteten dira beti. Ez izan dudarik!

**CANCER**

Gora bihotzak! Udaberria iritsi zaigu eta, berarekin batera, berri eta gertaera on pila bat. Aprobetxatu sasoi hau eta ez galdu denbora.

**LEO**

Hartu berri duzun erabaki horrek poza ekarriko dizu hemendik gutxira. Zoriona hatzapar puntetan duzu; zure egoera inbidiagarria da.

**VIRGO**

Alaitu aurpegi hori. Ez duzu arrazoirik triste egoteko, dena ondo doakizu eta, horrez gain, laster zerbait potoloa jausiko zaizu...

**LIBRA**

Beldur eta zalantza horiek uxatu egin beharko zenituzke behingoz! Dena dela, zure buruak sortutakoak dira, ez beste inorenak.

**SCORPIUS**

Nola aldatu zaren azkenengo hilabeteetan... Beste bat ematen duzu: umekeriak alda batera laga eta heldutasunez jokatzen duzulako.

**SAGITTARIUS**

Gezurretan dabilenari, noiz edo noiz, antzematen zaio, ez pentsa! Elur bola handitu baino lehen, konpondu endredoa. Bestela ordainduko duzu.

**CAPRICORNIUS**

Zergatik zaude urduri? Eginda dagoena, eginda dago, majoi! Lasai, gainera erabaki zuzena hartu duzu-eta. Ez nekatu gehiago burua.

**AQUARIUS**

Nola egin aurre tentazioari? Zure esku dago erabakia. Gauza bakarra esango dizut: egin kasu buruari eta gauzak ondo joango zaizkizu.

**PISCIS**

Urteak betetzea ondo egin dizu: ardoekin moduan, urteekin hobera egin duzu. Gainera, amodio kontuetan zorieko zaude!

**Barixakua 8****KONTZERTUA**

**20.00.-** Sostoa abesbatzaren kontzertua. Markinako Karmengo elizan (Markinan).

**ANTZERKI JARDUNALDIAK**

**20.30.-** "Hámster" (Juanjotero Producciones, Sala Triángulo). Coliseoan.

**KONTZERTUA**

**21.00.-** Mursego eta Physis Versus Nomos kontzertuan. Kortxoenea gaztetxean (Gros, Donostia).

**Zapatua 9****BAZKIDE JAIXA**

**12.00.-** Piskolabisa, umeentzako puzgarriak eta tailerrak.

**14.00.-** Talde-argazkia.

**14.30.-** Bazkaria.

**16.30.-** Pailazoak: zirko-tailerra

**17.00.-** Bingo herrikoia.

**17.30.-** Dantza-saioa, DJ Arnok girotuta. Armeria Eskolan.

**TENIS TXAPELKETA**

**12.00.-** Eibarko I. Tenis Txapelketako finala: Agustín Quintana eta Imanol Argüeso. Unbeko tenis zelaian.

**HIRU-TXIRLO TIRALDIA**

**17.00.-** Gipuzkoako Hiru-Txirlo txapelketaren jardunaldia. Asola-Berri bolatokian.

**ANTZERKI JARDUNALDIAK**

**17.00.-** "Ali. Amona Kandelaria eta alfonbra hegalaria" (La Pera Llimonera Teatre, Txalo Produksioak). Sarrera: 5 euro. Coliseoan.

**DANTZAREN EGUNA**

**18.30.-** Nazioarteko Dantzaren Eguna: Biraka Barra eta flashmob grabaketa. Biraka Dantza Taldeak antolatuta. Untzagan.

**Domeka 10****KONTZERTUA**

**12.30.-** Cielito Musika Bandaren kontzertua. Coliseoan.

**USARTZAKO ERROMERIA**

**14.00.-** Bazkaria Krabelin hotelean.  
**16.30/18.00.-** Erromeria Usartzan.

**Astlehena 11****HITZALDIA**

**19.00.-** "8x10. Zortzi idazle Errepublikako", Kirmen Uriberen eskutik. Portalean.

**Martitzena 12****IKASTEN**

**10.00.-** "Culturas precolombinas", M<sup>a</sup> Jose Noainen eskutik (bakarrik Kutxa Ikasgeletan matrikulatuta daudenentzat). Armeria Eskolan.

**HITZALDIA**

**19.00.-** "La República en la persona muchos bienes proporciona (¡Vamos digo yo!)", Jose Antonio Fraguas "Forges"-en eskutik. Portalean.

**ANTZERKI JARDUNALDIAK**

**20.30.-** "¿María?" (En Blanc). Coliseoan.

**Eguaztena 13****IRTEERA**

**08.30.-** Burgosera txangoa, Untzaga jubilatuta etxekoekin. Irteera Ego Gaietik.

**IKASTEN**

**09.30.-** "TV y medios de comunicación", Alex Aranzabalen eskutik (Esperientzia Eskolakoekin batera). Armeria Eskolan.

**17. KORRIKA**

**15.15.-** Korrika Txikia, La Salle Isasitik hasita. Amaiera ekitaldia Eibarko Bizikleta Plazan, Arno Djarekin.  
**21.07.-** 17. Korrika Maltzagatik Eibarrera sartuko da.

**HITZALDIA**

**19.00.-** "El sistema de bibliotecas y la educación en la II. República", Jesus Gutierrezen eskutik. Portalean.

**Eguena 14****IKASTEN**

**10.00.-** "Coaching", Equiliaren eskutik. Armeria Eskolan.

**ODOL EMAILEAK**

**18.30.-** Odol-emaileentzat odol ateratzea. Odol emaileen elkartean (Pagaegi, 3 behe).

**KALETAN KANTUZ**

**19.30.-** Kaleetan Kantuz-erako entsegua. S. Andres elizako lokaletan.


**ARRATEKOEN BATZARRA**

**19.30.-** Arrate eskubaloi taldeko bazkideentzat ezohiko batzarra. Armeria Eskolan.

**ANTZERKI JARDUNALDIAK**

**20.30.-** "Erratsak" (Dejabu Panpin Laborategia, Le Petit Théâtre de Pain, Artedrama). Coliseoan.





## erakusketak

- Apirilaren 10era arte  
**EIBARKO TXIRRINDULARI ELKARTEA**-ren 85. urteurreneko erakusketa. *Portalean* (erakusketa aretoan).
- Apirilaren 15era arte  
**PAGATXA** Emakume Elkartekoen eskulan erakusketa. *Untzaga jubilatutxean*.
- Apirilaren 30era arte  
**EIBARKO TXIRRINDULARI ELKARTEA**-ren 85. urteurreneko erakusketa. *Portalean* (Armagintzaren Museoa, 5. pisuan).
- JOSE ANTONIO FRAGUAS "FORGES"**-en "La república en la persona muchos bienes proporciona (¡Vamos digo yo!)". *Portalean*.
- KLUB DEPORTIBO**ko argazkilaritza taldekoen "Aratosteak" erakusketak. *El Ambigú eta Portalea tabernetan*.
- "COLECCIONES"**, Aula 7 argazkilaritza taldearen argazkiak. *Depor tabernan*.

## lehiaketak

- **Argazkilaritza Maiatzean lehiaketa.** Informazioa eta lanak entregatzea: *Apirilaren 12ra arte*, Klub Deportiboan.
- **Liburu ezkutuarien bila.** Noiz: *Apirilaren 2tik aurrera*, Juan San Martin Liburutegian. Bizikleta zozketatuko dute kategorian bakoitzean joko osatzen dutenen artean.
- **Ixua-Valenciaga argazki lehiaketa.** Informazioa eta lanak aurkeztea: *Maiatzak 6ra arte*, Eibarko Txirrindularien Elkartearen (Pagaei, 3 behean) edo [cce@clubciclistaeibarres.org](mailto:cce@clubciclistaeibarres.org)
- **Sanjuanak 2011 kartel lehiaketa.** Informazioa eta lanak aurkeztea: *Maiatzak 13ra arte*, Pegoran. Saria: 600 euro.
- **Sanjuanetan alkohol larregi ez edateko pegatina lehiaketa.** Informazioa eta lanak aurkeztea: *Maiatzak 13ra arte*, Pegoran. Saria: 180 euro.

## farmaziak

- 8, barixakua**  
EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)  
GAUEZ **Ibarrondo** (Zeharkalea, 2)
- 9, zapatua**  
EGUNEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)  
GAUEZ **Aranburu** (Gipuzkoa etor., 46)
- 10, domeka**  
EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)  
GAUEZ **Cortina** (Zubiaurre, 29)
- 11, astelehena**  
EGUNEZ **Las Heras** (Sostotarren, 10)  
GAUEZ **Alberdi** (Zubiaurre, 9)
- 12, martitzena**  
EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)  
GAUEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)
- 13, eguaztena**  
EGUNEZ **Larramendi** (Calbetón, 19)  
GAUEZ **Larramendi** (Calbetón, 19)
- 14, eguena**  
EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)  
GAUEZ **Larramendi** (Calbetón, 19)
- 15, barixakua**  
EGUNEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)  
GAUEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)

## ikastaroak

- **Hitano ikastaroa.** Noiz eta non: Maiatzeko martitzenetan, 18.30-20.30, Udal Euskaltegian. Izen ematea eta informazioa: *Apirilaren 15era arte* (Udal Euskaltegian, 943700912); *Maiatzaren 2ra arte* (Badihardugu Euskara Elkarte: 943121775).
- **Sendian programa.** Gaia: Mugitzeko ezintasuna edo zailtasunak dituztenei laguntzeko produktuen berri emateko ikastaroa. Noiz eta non: *Maiatzak 10 eta 12, 15.00-17.00*, Portalean (ikastaro gelan). Izen ematea eta informazioa: *Apirilaren 29ra arte*, Pegoran. Matrikula doan.
- **Gurasoendako ikastaroak.** Gaia: Gurasoen eta seme-alaben heziketa emozionala (LH eta DBHko 1. Zikloko ikasleen gurasoendako). Noiz eta non: *Maiatzak 2, 4, 9 eta 10, 18.00-20.00*, Portalean. Izen ematea eta informazioa: *Apirilaren 15era arte*, Pegoran.

## telefono jakingarriak

SOS deiak .....	112
Pegora .....	010
Udaletxea .....	943 70 84 00
Portalea .....	943 70 84 39
Udaltzaingoa.....	943 20 15 25
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa.....	943 82 01 10
KIUB .....	943 20 38 43
Epaitegia .....	943 03 34 00
Iberdrola .....	901 20 20 20
Naturgas .....	902 12 34 56
DYA Larrialdiak.	943 46 46 22
Gurutze Gorria..	943 22 22 22
Mendaro osp.....	943 03 28 00
Anbulategia.....	943 03 25 00
Torrekuia.....	943 03 26 50
Errepideak.....	902 11 20 88
Ertzaintza .....	943 53 17 00
Eusko Tren .....	902 54 32 10
Pesa .....	902 10 12 10
Taxiak.....	943 20 30 71
.....	943 20 13 25
Alkohol.Anon. ..	629 14 18 74
Al-Anon/Alateen	650 26 59 63

## autobus ordutegiak

**EIBAR-DONOSTIA.** Lanegunak: 07.00etatik 9.30etara ordu erdiro eta 09.30etatik 20.30etara ordu. Zapatuak: 07.00 eta 08.30etatik 20.30etara ordu. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 13.30, 15.30, 17.30, 19.30 eta 21.10. **DONOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.30etatik 14.30etara ordu, 15.00, 15.30etatik 18.30etara ordu, 19.30, 20.30 eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 08.30etatik 20.30etara ordu, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.30etatik 18.30etara bi ordu, 19.30, 21.00 eta 22.00.

**EIBAR-BILBO.** Lanegun eta zapatuak: 06.40etatik 20.40etara ordu. Jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara ordu erdiro. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu erdiro.

**EIBAR-GASTEIZ.** Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara ordu eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30. **GASTEIZ-EIBAR.** Lanegunak: 06.30etatik 20.30etara ordu eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.

**EIBAR-IRUÑEA.** Lanegunak: 07.45 eta 13.30. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Laneguna: 11.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.

**EIBAR-ARRATE.** Zapatuak: 14.15. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Zapatuak: 14.45. Jaiegunak: 09.30, 10.30, 11.30, 13.30 eta 18.30.

**EIBAR-ELGETA.** Lanegunak: 13.30 eta 20.30. Jaiegunak: 12.00 eta 19.00. **ELGETA-EIBAR.** Lanegunak: 14.00 eta 20.50. Jaiegunak: 12.30 eta 19.30.

**EIBAR-MENDARO.** Lanegunak: 06.20 eta 07.05etatik 22.35etara ordu erdiro. Zapatuak: 07.00etatik 21.00etara ordu. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara ordu. **MENDARO-EIBAR.** Lanegunak: 06.45etatik 21.15etara ordu erdiro eta 21.55. Zapatu eta jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara ordu eta 21.55.

## tren ordutegiak

**EIBAR-DONOSTIA.** Egunero: 08.13etatik 22.15etara ordu, 10.55 eta 21.55. Lanegunak: baita 06.15 eta 07.13. **DONOSTIA-EIBAR.** Egunero: 07.47etatik 20.47etara ordu, 9.20 eta 20.20. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47.

**EIBAR-BILBO.** Egunero: 08.13etatik 22.13etara ordu, 10.56 eta 21.56. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **BILBO-EIBAR.** Egunero: 06.57etatik 20.57etara ordu, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

## 1. Etxebizitza

### 1.1. Salgai

– Apartamentu polita salgai Mendaron. Logela handia, egongela, sukaldia eta komuna. Berria (2001ekoa). Bizitzera sartzeko moduan. 126.500 euro. Tel. 652-718426 eta 666-349860.

– Pisua salgai Barrena kalean. 2 logela, egongela, sukaldia-jangelak eta komuna. Igogailua eta fatxada berriarekin. Bizitzera sartzeko moduan. Eguzkiak. 192.000 euro (negoziagarria). Tel. 626-100783 eta 943-254533.

### 1.2. Errentan

– Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 943-201106 eta 680-526228. Nuri.

– Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 628-785393.

– Eibarren logela independentea alokagai. Komuna, mikrouhinak, telebista. Garajea aukeran. Tel. 652-765200.

– Barrena kalean pisua alokagai. Logela bi, egongela, sukaldia eta komuna. Tel. 697-721417.

– 3 logelako pisua alokatuko nuke Eibarren. Tel. 681-322442.

– Pisu txikia (logela bi) alokatuko nuke Eibarren. Tel. 693-509830.

## 2. Motorra

### 2.1. Salgai

– Karabana finkoa salgai, abanzen osoarekin. Extrak: hozkailua, garbigailua eta dutxa Mutrikuko Santa Elena kanpingean. Tel. 615-761825.

## 3. Lokalak

### 3.1. Salgai

– Garaje itxia salgai Txomon. 36.000 euro. Tel. 644-403759.

– Lokala salgai Urkizu aldean. 90 m<sup>2</sup> ingurukoa. Aterpearekin. Tabernarako egokia. Prezio ezingarria. Deitu 18.00etatik aurrera. Tel. 606-773886.

### 3.2. Errentan

– Garajea alokagai San Andres pasealekuan. 7 metroko trasteroekin. Tel. 943-120308.

– Garajea alokagai Asua-erreakan. 22 m<sup>2</sup>koa eta itxia. Tel. 678-426136.

– Urkizu inguruan gazteentzako lokala hartuko nuke alokairuan. Deitu 20.30etatik aurrera. Tel. 656-736509.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxean, lokalen eta autoen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak, garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro. Autoak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

## 1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

## 2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

## 3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

## 4. Lana

### 4.1. Lan bila

– Mutila eskaintzen da sukaldari-laguntzaile moduan. Esperientzia-ekin. Tel. 657-683887.

– Emakumea eskaintzen da orduka sukaldari moduan lan egiteko eta garbiketa lanetarako. Tel. 671-343612 eta 943-531931.

– Gizona eskaintzen da txofer moduan eta lorezain moduan lan egiteko. Tel. 671-343612 edo 943-531931.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 605-129530.

– Neska eskaintzen da etxeak edo tabernak garbitzeko, sukaldari-laguntzaile moduan eta nagusiak zaintzeko. Tel. 688-806348.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta elkarrekin edo etxeak garbitzeko. Tel. 656-946074.

– Mutila eskaintzen da soldatzaile eta galdaragile jarduteko. Tel. 628-615057.

– Emakumea eskaintzen nagusiak zaintzeko. Tel. 680-969415.

– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko. Tel. 660-919423.

– Mutila eskaintzen da edozein lanetarako. Kamioi, taxi eta anbulantzia karnetekin. Tel. 663-656621.

– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. Tel. 672-572526.

– Emakumea eskaintzen da garbiketa lanetarako eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 627-031640.

– Neska eskaintzen da orduka garbiketarako edo umeak zaintzeko. Tel. 671-971930.

– Emakumea eskaintzen da garbiketa lanetarako eta nagusiak zaintzeko ospitalean. Tel. 629-994385.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 618-354218.

## 4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

## 5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

## 6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

– Gizona eskaintzen da gidari lanetarako. Karnet guztiekin eta furgonarekin. Tel. 649-651000.

– Gaztea eskaintzen da edozein lanetarako: garbiketarako, nagusiak zaindu... Tel. 689-974001.

– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 636-976515.

– Emakume euskalduna eskaintzen da bulegoak garbitzeko. Tel. 687-114707.

– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako edo etxeko lanak egiteko. Tel. 678-972690 eta 943-530795.

– Emakumea eskaintzen da orduka nagusiak zaintzeko. Tel. 635-355168.

– Emakumea eskaintzen da asteburuetan lan egiteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 646-358709.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Tel. 659-037882.

– Neska eskaintzen da orduka etxeko lanak egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 635-187901.

– Emakumea eskaintzen da orduka nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. Esperientzia. Tel. 648-603029.

– Neska eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta umeak edo nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 666-008974.

– Mutila eskaintzen da sukaldari-laguntzaile jarduteko taberna, jate-txe edo hoteletan. Esperientzia. Tel. 664-067280.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko etxean edo ospitalean eta sukaldari-laguntzaile moduan. Esperientzia. Tel. 638-249775.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko etxean edo ospitalean eta sukaldari-laguntzaile moduan. Esperientzia. Tel. 688-884746.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. Esperientzia. Tel. 608-147559.

– Neska eskaintzen da 16.00etatik 20.00etara nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 679-822570.

### 4.2. Eskaintzak

– Sukaldaria eta kamarera/o behar dira Aste Santurako. Autoarekin. Tel. 677-638184.

## 6. Denetarik

### 6.1. Salgai


– Bikiendako McLaren aulkia salgai. Erabat ekipatua. Tel. 600-866865.

– Mendiko bizikleta salgai 6-12 urte bitartekoentzat. Gutxi erabilia. 45 euro. Deitu 21.00etatik aurrera. Tel. 943-204238. Itziar.

### 6.4. Bestelakoak

– Katakumea hartuko nuke. Tel. 639-044748.

– Lau bizikletarako erremolkea, bolan lotzekoa, erosiko nuke. Tel. 646-293311. Alberto.



**Ignacio  
Zuloaga  
Institutua**

**EIBAR**




Ate irekien eguna

**Apirilak 13**

Ordua 18:00

**Batxilergoak:** Arteak - Humanitateak eta Gizarte Zientziak - Zientziak eta Teknologia




Arte Batxilergoa

**Elkartrukeak**



Zientziak Batxilergoa

**Alemania - Ingalaterra**



Gizte Batxilergoa

Jardifeta 3 Eibar - Tel.:943208349 - Fax:943206048 - www.ignaciouzuloaga.net - E-mail:012055aa@hezkuntza.net

**Eskela,  
urteurren meza  
edo eskertzarik  
jarri nahi baduzu**

*...eta kitto! aldizkarian  
duzu aukera (943 20 67 76)*

# TEORIKA ATERATZEKO IKASTARO TRINKOAK

**Materia arriskutsuak / C.A.P.**

Merkantziak eta bidaiariak garraiatzeko  
**nazioarteko** agentzia **ziurtagiriak**  
lortzeko ikastaroak




**T. Etxebarria, 7**

**Tel. 943 70 23 84**

**Tel. 943 70 23 78**




ZERBITZUA



ADMINISTRAZIOA



BILERAK



GESTIOA

# EUKI

T. Etxebarria, 1 - behea Tel. 943 20 42 99

## KOMUNITATEAK